




Zazpigarrenaren bila Hernani, etxean

HERNANI
FUTBOLA

10



'Satorjator' emanaldia gaur, Oronan

HERNANI
DOBERA EUSKARA ELKARTEA

3



Lehiakortasuna baino gehiago elkarlana, negozio eta herritarrek

URUMEA LANEAN
KRONIKAREN BANAKETA 14-15



Zer izango da futbol zelaia?

2020 urteko asmoen artean dauka Ereñotzuko Auzo Udalak, futbol zelaiaren eremua berritu, eta behar ezberdinetarako prestatu eta egokitzea. Hiru proiektu eskatu dituzte, eta horien artean bat aukeratuko dute, auzotarrekin. Dena ondo joanez gero, lanak aurten hasia da asmoa.

8

Herriko aurrekontua, herriaren esku


ASTIGARRAGA
UDALA

5

AGENDA

GAUR : Lurraldeakako
08:30 : finalak, EHko Mus
: Txapelketan
SEGURA ETA IRURA

GAUR : Kontuen Eguna,
13:00 : Inauteriak
: bukatzeko
GOIZUETA



GAUR : Urrezko
16:00 : Erremonte Saria
: eta jaialdia
GALARRETA

Azken hilabeteetan Hernanin gertatu diren eraso sexisten aurrean, salaketa

Azken hilabeteetako hainbat eraso salatu ditu Mugimendu Feministak: «gure herriko jendea da erasotzen gaituena».

Ohar baten bitartez, Hernaniko Mugimendu Feministak salatu nahi izan ditu, azken hilabeteetan gertatu diren hainbat eraso sexista. Eta adierazi du, erasotzaileak ez direla kanpotik datozenak soilik: «gure herriko jendea da erasotzen gaituena». Kritikatu du, gainera, «erasoak normalizatzeko dagoen joera».

HERNANI
MUGIMENDU FEMINISTA

4

MARRAKECH Apirilaren 8an ASTE SANTUA Bilbotik hegaldi zuzena 5 gau 3* hotelean gosaria barne	649 €
PLAYA BAVARO Apirilaren 7an ASTE SANTUA Madrilik hegaldia 7 gau 4* hotelean DENA BARNE	1190 €
MALLORCA Apirilaren 12an ASTE SANTUA Bilbotik hegaldi zuzena 7 gau 3* hotelean gosaria barne	410 €
OPORTO Apirilaren 30ean MAIATZEKO ZUBIA Bilbotik hegaldia 3 gau 3* hotelean gosaria barne	484 €
MADEIRA Maiatza eta Ekainean Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean, gosaria barne	499 €
TURKIA Ekainean Bilbotik hegaldi zuzena 4 gau zirkuituan + 3 gau Estambul 4* hoteletan pentsioa osoa + biotak barne	1040 €

ASTE SANTUAN BIDAIAK TALDEAN. CLUB MARCO POLO INDIA, RUMANIA, BENIN, JORDANIA, BURKINA

Club Marco Polo

www.bidaibila.eus
Taldeen arteko prezio bereziak

HERNANI BIDAIAK
Urberia, 6
943 33 00 49

JARRAITU:
g+ i f t p

Laburbira, Zinegoak eta antzerki zikloa martxoan, makina bat emanaldirekin gozatzeko

Hilabete bukaera aldera izango dira bi zine zikloak eta antzerki saioak, eta baita Txistularien Topaketa ere. Aurretik, literaturak hartuko du protagonismoa, martxoko kultur agendan.

KULTURA MARTXOKO AGENDA

Kultur ekintzetan barietatea ekarriko du martxoko agendak ere, hernaniarrentzat. Baina bereziki, hiru arlok hartuko dute protagonismoa, oraingoan: literaturak, antzerkiak eta zineak.

Izan ere, antzerki zikloaren hilabetea izango da martxoa, eta ohi bezala, hiru antzezlan eskainiko dituzte Biterin, 24tik 26ra: *Ni, munduko txarrena* hasteko, Vaiven etxearena, Ainara Ortega hernaniarra antzezlearen artean dela; *Quitamiedos* ondoren, Kulunka konpainiarena; eta *Ene ba!* bukatzeko, Txalo Produzioakena. Hilaren 16an jarriko dituzte sarrerak salgai.

Baina hiru horiek ez dira izango, martxoko antzerki saio bakarrak. Hilaren 14an, *Hansel eta Gretel* emanaldia eskainiko du Borobil Teatroak, haurrentzat. Sarrerak, etzitik aurrera salgai, Biterin.

Antzerki zikloa bezala, martxoaren bukaera aldera izango dira, baita ere, bi zine ziklo. Batetik, Laburbira antolatu du Dobera Euskara Elkarteak, hilaren 25ean, 18:30etan Sandiusterrin. Horrela, beste urte batez, Hernanira ekarriko ditu, Film Laburren XVII. jaialdiko pelikulak.

Eta bestetik, hilaren 27an eskainiko dute Zinegoak nazioarteko jaialdiaren film sorta, Biterin, Berdintasun Kontseiluak eta Udalak antolatuta. Bilboko Gaylesbotrans zine eta arte eszenikoen nazioarteko jaialdia da Zinegoak, hain justu.

Makina bat literatur saio, adin ezberdinetarako

Baina guzti horien aurretik, literatura izango da protagonismo berezia hartuko duena. Izan ere, ohiko ekintzei segida emanez, makina bat literatur saio izango dira Biterin, adin ezberdinetako herritarrei zuzenduta.



'Gau beltza' film laburra izango da ikusgai, besteak beste, Laburbira film laburren jaialdian, martxoaren 25ean Biterin.

Horrela, hasteko, *Mintzoan kux-kux* irakurketa kluba izango da hilaren 5ean, 3-5 urteko haurrentzat; emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik lantzeko saioa, Kattalin Mineurrekin, hilaren 10ean; bi ipuin kontaketa saio, Apaxirekin 18an eta Maite Frankorekin 31n; eta

literatur solasaldiak hilaren 11n eta 17an, Ane Mayozeekin.

Txistulari Gazteen Txapelketa eta Topaketa, 28an eta 29an

Festa berezirik ere izango du martxoak, musikarekin lotuta. Izan ere, Txistulari Gazteen XV. Txapelketa antolatu dute hila-

ren 28an, goiz eta arratsalde, Milagrosan; eta Txistularien Topaketa 29an, kaxkoan barrena.

Txistu doinuak entzuteko, dena den, ez dute hilaren bukaerara itxaro behariko: txistu kontzertua eskainiko du Hernani Musika Eskolak, hurrengo igandean, martxoaren 8an. **K**

Martxoko agenda

5 *Mintzoan kux-kux*, ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasak, Marik gidatuta. 3-5 urteko haurrentzat, gurasoek lagunduta. Tokia mugatua da. 17:30etan, Udal Liburutegian.

8 Txistu kontzertua, Hernani Musika Eskola Publikoak. 12:30etan, udaletxeko arkupeetan.

10 *Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik*, Kattalin Mineurrek gidatutako mintegia. Miren Amurizaren *Basa* liburua landuko dute. 19:00etan, Udal Liburutegian.

14 Bigarren Eskuko Azoka, 10:30etatik 14:30etara, Urbietakalean.

14 Kalez Kale Kantari, 12:00etan

abiatuta Plaza Berritik.

14 Erromeria, San Joan Konpartsak antolatuta. 18:30etatik 20:30etara, Plaza Berrin.

14 Haur antzerkia: *Hansel eta Gretel*, Borobil Teatroaren eskutik. 6 urtetik gorakoentzat. 12:00etan, Biterin. Sarrerak salgai, martxoaren 2tik aurrera.

18 Ipuin kontaketa, Apaxirekin. 17:30etan (3-4 urtekoentzat) eta 18:00etan (5-7 urtekoentzat), Biterin. Tokia mugatua da, eta gonbidapenak eskatu behar dira Udal Liburutegian.

25 Zinea Euskaraz: Laburbira, film laburren XVII. emanaldia. Dobera Euskara Elkarteak antolatuta, euskeraz. 18:30etan, Sandiusterrin.

27 Zinegoak, Zinearen eta Arte Eszenikoen Gaylesbotrans

Jaialdia. Berdintasun Kontseiluak eta Hernaniko Udalak antolatuta. 19:00etan, Biterin.

28 Hernaniko Txistulari Gazteen XV. Txapelketa. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30etara, Milagrosan.

29 Txistularien Topaketa, 10:00etan Kaxkoan.

30 Zilegi Eskola: Perkusio tailerra, Iñigo Egiarekin, euskeraz. 09:15etan, 14:30etan edota 18:30etan, Hernaniko Bertso Eskolan.

31 Ipuin kontaketa, Maite Frankorekin. 17:30etan (3-4 urtekoentzat) eta 18:00etan (5-7 urtekoentzat), Biterin. Tokia mugatua da, eta gonbidapenak eskatu behar dira Udal Liburutegian.

ANTZERKI ZIKLOA

Sarrerak salgai, martxoaren 16tik aurrera.

24 *Ni, munduko txarrena*, Vaiven Producciones. Euskeraz. 20:00etan, Biterin.

25 *Quitamiedos*, Kulunka Teatro. Gaztelaniaz. 20:00etan, Biterin.

26 *Ene ba!*, Txalo Produzioak. Euskeraz. 20:00etan, Biterin.

LITERATUR SOLASALDIAK

11 *La lluvia amarilla*, Julio Llamazares. Ane Mayoze dinamizatuta, gaztelaniaz. 19:30etan, Udal Liburutegian.

17 *Andraizea*, Irati Goikoetxea. Ane Mayoze dinamizatuta, euskeraz. 19:30etan, Udal Liburutegian.

ERAKUSKETAK

10-28 Argazki erakusketa, Nagore Legarreta. 18:00etatik 20:00etara, Biterin.

GAZTELEKUA

5 Betaurreko moreak dinamika, Tratu Onakekin.

7 *Bar Bahar* pelikula.

13 BeatEroak, euskerazko rap musika sortu eta bideoklipa sortzeko saioa, Telmo Trenorrekin. 16:30etan.

14 Santa Barbarara irteera, 16:30etan abiatuta.

24 Argazki markoak egiteko tailerra, 17:30etan.

29 Argazki Rallya Hernanin, 16:30etan.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda eta
J. Zubitur.

Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM



DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

'Satorjator' emanaldia gaur, Oronan

Bi saio eskainiko ditu Ene Kantak taldeak, arratsaldeko 16:30etan eta 18:30etan.

DOBERA ENE KANTAK

Haur eta gaztetxoek gaur izango dute aukera, Dobera Euskara Elkartek antolatuta, Ene Kantak taldearen *Satorjator* emanaldia ikusteko. Bi saio eskainiko dituzte, 16:30etan eta 18:30etan. Sarrera guztiak salduta daude.

Hainbat gomendio, sartu-irtenak errazteko

Emanaldiak izango dira Orona Fundazioak Galarretan daukan Orokra Ideo eraikinean; Hernanitik Galarretarako bidean dagoen eraikin multzoetan aurrenekoan. Ateak zabalduko dituzte, saio bakoitza hasi baino ordu



'Satorjator' emanaldia ikusi ahal izango da gaur, Oronan. Argazkia: Ene Kantak

erdi lehenago. Bertan izango dira Doberako langile eta laguntzaileak, sartu-irtenak errazten laguntzeko eta zalantzak argitzeko; baina jarraibideak zehaztuko dituzten seinaleak jarraitzeko ere eskatu dute.

Bestalde, gomendatu dute Oronara autobusean joatea, aparkatzeko lekua badagoen

arren, erremonte jaialdi berezia izango delako Galarretan, eta jende asko espero delako.

Doberak eskerrak eman nahi izan dizkie, era berean, Orona Fundazioari, emanaldirako aretoa uzteagatik; eta Astigarragako Merke Azoka dendari eta Urrietako 2KN okindegiari, sarrerak saltzen laguntzeagatik. **K**

Sendotzarako topaketak, asteartetik

Martxoaren 3an ekingo die, Hernaniko Parrokiarteko Pastoraltzak, eta asteartero izango dira saioak, 19:45etan apaiz-etxeko batzar gelan.

ELIZA SENDOTZA

Datorren astean ekingo die Hernaniko Parrokiarteko Pastoraltzak, sendotza edo konfirmaziorako topaketei. Martxoaren 3an

hasita, asteartero izango dira saioak, arratsaldeko 19:45etan, apaiz-etxeko batzar gelan, Izpizua kaleko 3garren zenbakian, solairuardean. 18 urtetik gorakoei luzatu die deialdia, parte

hartzeko.

Topaketen ondoren, sendotzako sakramentua hartu ahal izango dute partehartzaileak, eta ekainaren 6an ekingo dute hori, larunbarekin. **K**



JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, deialdeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Beste norabide bat, euskara ez galtzeko

Gaur egun, euskara gero eta gutxiago hitz egiten da, bai ikastolan eta bai kalean. Arazo larri honek hizkuntza bat ezezik harekin batera dagoen kultura bat ere arriskuan jartzen du. Hau dela eta, arazo honekin bukatu behar dugu egoera konponezina bihurtu baino lehen.

Alde batetik, ikastolan euskara gero eta gutxiago hitz egiten da. Gaur egun baliabideak soberan ditugu euskara ikastolan bultzatzeko. Halaber, datuek diotenez euskara erabilera eskolatan geroz eta txikiagoa da. XVIII. mendean Joanes Etxeberri eta Kardaberazek euskara irakaskuntzan txertatzearekin egiten zuten amets. Gaur egun ere pentsatzen genuen euskararen etorkizuna bermatuta egongo zela euskara hezkuntzan bermatuz gero. Haatik, denborak erakutsi digu hezkuntzarekin ez dela nahikoa euskararen

biziraupena ziurtatzeko. Beraz, ezinbestekoa da neurriak lehen baino lehen hartzea.

Badaude beste faktore batzuk euskararen erabilera eragin zuzena dutenak. Alde batetik, teknologia berriekin ingelera geroz eta prestigio eta ospe handiagoa lortzen ari da gure gizartean. Hori dela eta, batez ere gazteok euskara alde batera uzten ari gara. Egia da, interneten euskarak duen garrantzia geroz eta handiagoa dela. Halaber, ikusi dugunez ez da nahikoa, gure hizkuntza alde batera uzten ari baikara.

Orobat, ez dugu ahaztu behar euskarak beste hizkuntza txiki askok bezala, gaztelania edo ingelera bezalako hizkuntza handiekin bizi behar duela. Hau kontuan hartu behar dugun errealitatea da, eta euskararekin bukatu nahi ez badugu ezinbestekoa da neurriak hartzea.

Izaki bizidunekin gertatzen den bezala, desagertzeko arriskuan dauden espeziak babestu egiten ditugu, baina, zergatik desagertzeko zorian dauden hizkuntzeekin ez dugu halakorik egiten? Zergatik ez dizkiegu baliabideak ematen hizkuntza minoritarioei?

Argi dago gure esku ez dauden beste interes batzuk daudela honen atzean. Baina guk ere egoera hau hobetzeko ahalmena dugu. Hori horrela izanda, kontuan izan behar dugu gure hizkuntza arriskuan dagoela. Beraz, egoera hau konponezin izan ez dadin, beharrezkoa da egoera honi irtenbideak bilatzea, beste norabide bati ekitea. Hizkuntzaren errealitateak adierazten digu dagoeneko hartu ditugun neurriak ez direla nahikoak eta, beraz, hausnarketarako ueña iritsi dela.

Iker Arratibel Zotes

'Asertibitatea eta ahalduntzea' tailerrea, plazak libre daude oraindik

BERDINTASUNA JABETZE ESKOLAK

Etzi hasiko da, astelehenarekin, *Asertibitatea eta ahalduntzea* tailerra, Jabetze Eskolen baitan; eta plazak libre daude oraindik, parte hartu nahi dutenentzat: Plaza Feministan (Aristizabal kalea 7), 943 33 70 17, edo berdintasuna@hernani.eus; 24 euro dira. Ekainaren 1era arte izango da, astelehenero, 17:30etatik 19:30etara.

BERRIA NUEVO Micro 2020

abiātu 2.0

AP Apatxak
P Parkeak

Abiātu

Autobideetako zein aparkalekuetako hesiak irekitzen ditu!

✓ Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagotari!

✓ Egungo deskontu-sistemearekin jarraitzen du!

✓ Orain Frantzia osoan ere bai!

✓ Bertsio eguneratua eta potenteagoa!

GOGOAN IZAN abiātu 2.0 BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGik teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiātu gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiātu.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!

BIDEGI

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106
GI-20 - KP / PK 14,800 - Arizeta-Usurbil

«Gure herriko jendea da erasotzen gaituena»

Azken hilabeteetan gertatutako eraso sexistak salatu nahi izan ditu Hernaniko Mugimendu Feministak: «erasotzaileak ez dira bakarrik kanpotik gurera datozenak».

HERNANIKO MUGIMENDU FEMINISTA

Herrian aurreko hilabeteetan izan diren gertaerak salatu nahi izan ditu Hernaniko Mugimendu Feministak, ohar baten bitartez. Izan ere, adierazi du «azkeneko hilabeteetan Hernanin gertatutako eraso batzuen berri» izan duela: «eta erasotzailea, hainbat mugimendu eta eragile desberdinetan ibili izan den gizon bat da».

Mugimendu Feministak aditzera eman du, erasoak «gure elkarte, eragile, kale, espazio publiko eta gure jai giroetan» ari direla gertatzen; eta erasotzaileak ez direla jende ezezaguna eta arrotza, «elkarbanatzen ditugun guneeetako kideak dira». Horren aurrean, «gogor» salatu nahi izan du, «erasoak normalizatzeko dagoen joera. Ez da hainbesteko izan bezalako esaldiak, parranda giroan gertatutako ekintza puntual bat bezala ulertzea, kontsumo egoera ezberdinak hartzea eraso egiteko arrazoi nagusi gisa...».

«Erasoen kudeaketak herri mailako ardura izan behar du» Hori horrela, Hernaniko Mugimendu Feministak «argi utzi» nahi du, erasoak ez direla soilik gertatzen sagardotegi garaian, eta erasotzaileak ez direla bakarrik «kanpotik gurera etortzen direnak. Gure herriko jendea da erasotzen gaituena. Zerbait puntual edo isolatua izan beharrean, egituraren baitan koka-



Eraso sexisten kontrako kontzentrazio bat, joan den urtean, Plaza Berrin.

tzen ditugu erasoak, eta horregatik diogu, eraso kudeaketak herri mailako ardura izan behar duela», nabarmendu du.

Era berean, azaldu du, erasoaren berri izan zenetik herriko eragile batek prozesu bat abiatu duela; baina argitu du, prozesu horretan ez direla parte hartzen ari Hernaniko Bilgune Feminista eta Mugimendu Feminista. Horren harira, aditzera eman ditu, «hainbat herri eta

«Erasoak gure elkarte, eragile, kale, espazio publiko eta gure jai giroetan ari dira gertatzen, eta erasotzaileak ez dira jende ezezaguna eta arrotza»

egoeratan ikusi eta ikasi duguna kontuan hartuz», prozesu batek eduki behar dituen «oinarriko baldintzak». Bost baldintza aipatu ditu: «prozesuaren erdigunean, erasotzaileak izan diren emakumeek* egon behar dute, eurek dira prozesuaren sujetu politikoa eta aktiboa; sujetua erasotutako emakumeak diren neurrian, eurei dagokie nahi eta behar duten prozesua diseinatzea; ezinbestekoa da erasotzaileak

izan diren horiek osatzen arreta jartzea eta beraien beharrak entzutea; erasotuen beharrak entzun eta osatzeko bide eta kanalak jartzea ardura kolektiboa da; eta prozesuaz arduratuko den lantaldea bidelaguna da, inoiz ez prozesuaren nondik norakoen erabakitzailea».

Eta adierazi du, «momentu honetan garatzen ari den prozesuak», ez dituela «ezaugarri hauek betetzen».

«Erasotzaileekin lan egin behar dela uste dugu, baina haiek ez dira lehentasuna»

Mugimendu Feministak adierazi du, ez duela erasotzaileak onartuko, «baina pertsonen heriotza sozialean ez dugunez sinesten, erasotzaileekin lan egin behar dela uste dugu». Hori bai, argi utzita bi ideia: «erasotzaileekin lan egiteko prozesuak abiatzarekin bat egiten dugu, argi utzita erasotzaileak ez direla lehentasuna; osatze prozesuaren helburu nagusia emakumeak osatzea da, eta ez erasotzailea berriro bere ohiko guneeetara bueltatzea».

Eta gogorarazi du, autodefentsa feministaz erantzungo diela erasoak: «erasoak jasaten ditugunok erantzuteko zilegitasuna dugu, beraz, erasorik ez erantzunik gabe! Emakumeon* arteko sareak eta aliantzak lantzen jarraituko dugu». **K**

Dispertsioaren kontra, ibilaldia Teresategira

Gaur izango da, Lasartetik abiatuta, eta bertaratzeko deia egin dute Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek.

PRESO ETA IHESLARIAK IBILALDIA

Dispertsiorik ez! lelopean, ibilaldia antolatu dute gaur goizean, Lasarteko Okendo Plazatik abiatuta, Zabaleta eta Jauregi auzoen artean dagoen Teresategi mendira. «17 urte betetzen dira aurten, dispertsioaren ondorioz

hil zirela Argi eta Iñaki, beraien senide presoari bisitatzeraz zijoazela. Haiek gogoratzeko, ekitaldi berezia egingo da Teresategin», azaldu dute.

Eta bertaratzeko deia luzatu dute, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek. Goizeko 10:30etan abiatuko dira oinez, Okendotik; eta 10:45etan elkartuko dira, Zabaletako plazatik abiatuko direnekin. Bertatik, Teresategira iritsiko dira, Argi eta Iñakiren oroitarria.

Ondoren, mokadutxo egingo dute, 12:30etan, Lasarteko Xirimiri tabernan. **K**

Erraustegiaren kontra gaur, Donostian

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA MANIFESTAZIOA

Manifestazioa bateratua deitu dute gaurko, Donostian, Errausketaren Aurkako Mugimenduak eta beste hainbat eragilek. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da, Easo Plazatik, *Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!* lelopean. «Zaldibarren gertatutako hondamendiak erakutsi digu, ezin dugula erraustegia onartu», nabarmendu dute: «gutxi batzuen negozioagatik, herritarren osasuna jarri dute arriskuan, eta krisia sortu denean ezkutatu egin dira agintari politikoak. Negligente hutsak dira». Era berean, jakinarazi dute, Zubietako erraustegia ofizialki inauguratzen duten egunean, herri guztietan kandlekin eta beltzez jantzita egingo dituztela kontzentrazioak, 19:00etan. «Oraingo martxoaren 3a da mahai gainean dagoen data, baina ez da ziurra», diote.

Urteko batzarra bihar, Peña Otañok

PEÑA OTAÑO ELKARTEA BATZARRA

Bihar egingo du urteko batzar orokorra, Peña Otaño elkarteak; eta bazkide guztiei luzatu die deia, bertaratzeko. Elkartearen izango da, 10:00etan, aurreneko deialdian; edo 10:30etan, bigarrenetan.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

LUCIANO SANCHEZ FRAILE

JAUNA

- Goian bego -

Argi bat itzali da hemen lurtean.
Berri bat piztu da, han, zeru ederrean.
Beti jarraituko duzu gure bihotzean.

**URKIA GARCIA FAMILIA,
MAITASUNEZ**

Hernanin, 2020ko otsailaren 29an





**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Hirigintza aholku batzordeko arautegia onartu du, Udalak

Asteartean, urteko bigarren plenoa egin zuten, eta landutako aztergaien artean, martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren mozioa aurkeztu zen eta eztabaida sortu zen Udal gobernu eta Astigarragako jeltzaleen artean.

UDALA PLENOA

Pasa den asteartean bildu ziren Astigarragako partidu politikoak, osoko bilkuraren bueltan. 8 gaiez osatutako gai zerrenda zen astearteko plenokoa, eta 2020ko urtarrilaren 28ko aktaren onarpenarekin, eman zioten hasiera osoko bilkura honi.

Ondoren jorratu zuten gaia, Hirigintza Aholku Batzordearen arautegia izan zen, eta Xabier Urdangarinek adierazi zuen, 7000 biztanletik goragoko herriak, Aholku Batzorde baten parte hartzea beharrezkoa dela. Arauak ezarri dituzte eta bertan aipatzen da, zeintzuk diren hirigintza aholkularitza honen «izaera eta eginkizunak, osaketa zein den eta nola funtzionatuko duen». EAJko bozeramaileak dio: «oso ideia ona iruditzen ziagu, eta ados gauden». Bozkaketa egin ostean, hirigintza aholkulari batzordearen aztergaia onartu zuten, Urdangarinek adieraziz, «aho batez onartzen da orduan».

Bigarren gaia onartuta, hirugarrenarekin hasi ziren, Santio Zearra 7-1 unitatea Xehetasun Azterlana, hain zuzen. Eskarekin eta erabakiekin bat etorri ziren denak, eta onartutzat eman zuten.

Laugarren gaia, 2020ko langile lanpostu zerrendaren zati bat aldatzean oinarritzen zen. Urdangarinek, EH Bilduren izean proposatu zuen, «alde batetik, uda honetako lanpostuen zerrenda aldatzea, lehenik ofizial ordean lanpostuak. Eta bigarren, erregistroko administrari lanpostuak betetzeko moduko aldaketak egitea». Denek aldeko bozka egin zuten, eta bosgarren aztergaira pasa ziren, Soldata igoeraren proposamena, «enplegatutako publikoen eta kasu honetan, Astigarragako lan-



EH Bilduko kideak, astearteko Osoko Bilkuran.

gile finkoen kasuan, soldatak igotzeko proposamena onartu nahi dugu». Hiru kontzeptu azpimarratu zituen Urdangarinek, alde batetik, soldataren %2ko igoera, beste alde batetik BPG ren bilakaeraren arabera igoera, eta bestetik produktibitatea. Proposamenak adierazi ostean, bozkaketa egin, eta onartutzat eman zen.

Hirigintzako aholku batzordearen arautegiari, hasierako onarpena eman zitzaion astearteko Osoko Bilkuran.

Seigarren gaia, berdintasunaren aldeko emakumeen kontrako biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarean (Berdinsarea) atxikitzea zen. Urdangarinek, Berdinsarea zer den azaldu zuen lehenik, «euskadiko udalen sare bat, eta bere helburua da, bai maila politikoan eta bai maila teknikoan lankidetzaz sustatzea». Hori horrela, Astigarragako EH Bilduri, oso egokia iruditzen zaio honelako sarean parte hartzea, «garrantzitsua delako, beste herrietan egiten diren ekimenen berri izatea, eta gu egiten ari garenekin ere elkartzeko, honekin lankidetzaz lortu dugu eta asko ikasi gainera». EH Bilduren proposamena da, sarea atxikitzea, eta atxikipen hau egiteko alkateari baimena ematea, sinatu behar diren dokumentuentzako. Urdangarinek, proposamenak adierazi ostean, bozkaketa egin zen, eta aldeko bozka atera ziren, beraz onartuta gelditu zen, eguneko zortzigarren aztergai hau.

Martxoak 8ko adierazpen instituzionalean, lau abstentzio Martxoak 8rako mozioa aur-

keztu zuten, «mozioa aurkeztu degu, ez baikara adostasun batera iritsi» eta mozioa irakurri zuen alkateak. Behin hau irakurri, eta EH Bilduren posizioa zein den adierazita, lau abstentzio egon ziren eta Astigarragako Jeltzaleek adierazi zuten: «pena ematen digu abstentzuek, baina hainbat arrazoirekin ez gatoz bat, hala ere, gehiena bota duguna faltan izan da, arrazoietan ez duzuela aipatu indarkeria matxistaren errealitatea zein den». Jeltzaleei erantzuna eman zien Urdangarinek, «martxoak 8 ez da bereiziki indarkeriaren aurkako eguna, emakumeen eskubideei aldarria egitekoa baizik. Gainera iruditzen zait, eraldaketa erradikalak, beharrezkoak direla, hau da, erreproduzio sozial jasangarri bat planteatzen da, bizitza duinen hausnarketa bat eginik». Eta gai hau eztabaidatu ostean, bozkaketa egin zuten, eta lau abstentzioren aurrean, EH Bildukoek aldeko botoa eman zuten, eta Martxoaren 8ko mozioa onartutzat eman zen.

Zortzigarren gaia zen gai zerrendako azkena, Erregistro Zibilaren zerbitzua pribatizatzearen eta murriztearen aurkako mozioarena, hain zuzen, eta hau ere onartu egin zuten «aho batez».

Haur eskola berriaren idazketa proiektua

Udaleko teknikari eta Kiriketa haur eskolako hezitzaileen ekarpenekin aurreproiektu bat landu da azken hilabete honetan. Kontxa Etxeberria 10-11ko etxebean kokatuko den Astigarragako Haur Eskola berria nolakoa izango den ere zehaztu zuten astearteko Plenoan. Aurreproiektu honi, jarraipena eta garapena emango dion proiektua idazteko lehiaketa martxan jartzea ere onartu zen, adierazi zuten. **K**

Larunbatetan eta Aste Santuan, Xaguxar

Martxoaren 7 eta 28an ekintzak antolatu ditu Xaguxar Aisialdi Taldeak, eta Aste Santuetan, Ludoteka irekita egongo da, hala ere izena eman behar da.

XAGUXAR AISIALDIA

Hainbat aukera eskainiko ditu martxoan zehar Xaguxar Aisialdi taldeak, eta Aste Santuetan Ludoteka irekiko du. Aurrez izena eman behar da, eta martxoaren 9tik 13ra bitartean dago aukera emateko.

Ordainketa epea, martxoaren

16tik 20ra bitartean izango da eta prezio 40 eurokoa da, «hobariak izango dira familia ugari eta bi senide edo gehiagoko izen emaileentzat. 8:30etatik, 10:00etara zaintza zerbitzua ere eskainiko dugu», prezioa 20 eurokoa da.

Ekintzak eta ludoteka datozen hilabeteetan

Apirilaren, 6,7,8,14,15,16 eta 17an, Ludoteka zerbitzua eskainiko da, guztira zazpi egun izanik.

Martxoaren 7an, «emakumeen eguna gertu dagoela aprobetxatzeko», mural bat egingo da, eta martxoaren 28an, jolasak. Bi ekintzak, arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara izango dira, kultur etxeko aretoan. **K**



Astigarraga Zure Esku proiektua aurkeztu zutenekoa.

Herriko aurrekontua, herritarren eskuetan

Aurreko asteazkenean, 'Astigarraga zure esku'-ri buruzko aurkezpena egin zuten, aurrekontuetan herriak parte hartzea beharrezkoa dela adieraziz.

ASTIGARRAGA ZURE ESKU 2020RAKO AURREKONTUA

Astigarragako Udalak, Astigarraga zure esku proiektua jarri du martxan. 2020ko aurrekontuan 210.000 euro daude eta zertarako erabili astigarraren eskuetan utzi nahi du udalak, haien porposamenak kontuan hartzeko asmotan. Aurreko urtean, ekimen honi esker, eskolako jolastokia estali da, zahar-egoitzan berritze lanak egin dira, eta hainbat aldaketa gehiago lortu dira.

Horregatik, udalak dio herritarren parte hartzea behar-beharrezkoa duela.

Astelehenean irekiko da proposamenak aurkezteko epea, eta martxoaren 15era arte egongo da aukera. Hiru aukera egongo dira parte hartzeko, lehenik, eskuorrian idatzi behar dira proposamenak eta herrian kokatu diren postontzietan sartu. Hainbat tokitan egongo dira postontzi hauek; udaletxean, kiroldegian, eskola-sarieran, anbulategian, kultur etxean, Gaztelekuan, haur eskolan eta AEKn. Kanean ere egongo dira; Kontxa Etxeberriko Plaza, Joseba Barandiaran plaza, Errekato Enparantza, Ergobia Plazatxoa eta Norberto Almandoz plazan.

Bigarren, www.astigarraga.eus web orriko formularioa betez hartu daiteke parte, eta hirugarrena berriz, proposamenak alkatetza@astigarraga.eus helbidera bidaliz. **K**

Hitzaldiak, antzerkiak, mendi irteerak eta Ergobiko jaiak, martxorako

Urteko hirugarren hil honetarako, hamaika ekintza, ikuskizun, hitzaldi eta solasaldi antolatu dira. Etzirako, Gurasolagunerako zita jarri dute, arratsaldeko 16:30etatik aurrera, eta astearterako berriz, bi bilera ireki eta irakurketa kluba.

MARTXOKO KULTUR AGENDA

Ekintzez beteta dator urteko hirugarren hila, eta etzi hasiko dira martxoko ekintza hauek, Gurasolagun antolatu baita astelehenerako, arratsaldeko 16:30etatik aurrera. Ohiko moduan, hileko astelehenetan izango dira euskaraz mintzatzeko elkargune hauek.

Astearterako ere, antolatu dira kultur ekintzak, hala nola, *Kontrako ezarririk* liburuari buruzko irakurketa kluba, eta bi bilera; bat Euskaraldiari buruzkoa izango da eta bestea, haurren aurkako indarkeria matxistaren aurkakoa.

Gainontzean, hilabete osorako hitzaldiak, solasaldiak, antzerkiak eta beste hainbat ekimen antolatu dira, haien artean, *Mari eta gaileta fabrika* antzerkia. Hilaren 15ean izango da, arratsaldeko 17:00etan, kultur etxean. Haur eta familiei zuzendutako antzezlan da, eta berdintasunaz eta parekidetasunaz jarduten du. 5 urtetik gorakoei zuzendutakoa izango da. **K**



Mari eta Gaileta fabrika eskainiko dute martxoaren 15ean, kultur etxean. Argazkia: Eidabe.

Martxoko kultur agenda

2,9,16,23,30, **GURASOLAGUN**, 16:30-18:30.

2tik 9ra kultur etxe berrirako izenen **BOZKAKETA ELEKTRONIKOA**.

3 **IRAKURKETA KLUBA**, 19:30etan, liburutegian.

3 **BILERA IREKIA**, Euskaraldia, 18:45etan, ikastolako aretoan.

3 **BILERA IREKIA**, haurren aurkako indarkeria matxistaren aurka, 17:00etan, kultur etxean.

4 **LIBURU BABY KLUBA**, 10:30etan, liburutegian.

4 **HITZALDIA**, *Por un sistema público de pensiones*, 18:00etan, kultur etxean

5 **HITZALDIA**, *La brecha orgásmica*, 18:00etan kultur etxean.

7 **ESKULANAK**, 16:30-18:30, kultur etxean.

7 **MUSIKA**, *Souleko Divak*, 20:00tan, kultur etxean.

9 **LIBURU TXIKI KLUBA**, 17:30etan, liburutegian.

10 **ZINE FORUMA**, *Talentos Oculotos*, 17:00etan, kultur etxean.

11, 2020ko Santio jaiak prestatzen hasteko **BILERA IREKIA**, udaletxean 18:30.

11, 18 **SAIO IREKIAK**, Etorkizuneko Astigarraga eraikitzen, 17:30, kultur etxean.

11, 17,18 **TAILERRAK**, 11 eta 18an, 9:30etan, lehen sorospenak. 17an, 19:00etan, Zeinu hezkuntza, liburutegian.

12 **IPUIN ORDUA**, *Tximeleta belarriak*, 18:00etan, liburutegian .

12,17,27 **ARGAZKI SAIOAK**. Emakumeen plazako horman erabiltzeko.

12 **HITZALDIA**, *Ekologista naiz bai-*

na... 18:30etan, kultur etxean.

15,29 **IRTEERA**, Santiagomendiko sagardo bidea esploratzera, 10:00etan.

15 **DANTZA**, *Irrikada*, 13:00etan Foru plazan.

15 **ANTZERKIA**, *Mari eta Gaileta fabrika*, 17:00etan, kultur etxean.

21 **ZINEA**, *Ploey*, 17:00etan, kultur etxean.

23 **LITERATUR SOLASALDIA**, *Dos amores perdidos*, 19:30etan, liburutegian.

26 **ANTZERKIA**, *Alu ulu*, 18:00-20:00, kultur etxean.

27 **ZUMBA TAILERRA**, 19:00etan, kiroldegian.

28 **JOLASAK**, Xaguxarren eskutik, 16:30-18:00, kultur etxean.

29 **ERGOBIKO JAIK**, 10:30-17:30, Ergobin.

'Turuleka oiloa' pantailan, gaur

ZINEA TURULEKO OILOA

Gaur arratsaldeko 17:00etan, Turuleka oiloa jarriko dute kultur etxean. Sarrerak 2 euro balio du, eta 79 minutuko iraupena du pelikulak. Turuleka oso oilo berezia da. Itxura xelebrea duelako, beste oiloek barre eta burla egiten diote... beraz oilo honen pasadizo, istorio, ibilbideak, eta arazoei aurre egiteko moduak agertzen dira.

Errigorako produktuak, online

ERRIGORA PRODUKTUAK ESKAERA

Errigora produktuen eskaerak, martxoaren 12ra arte egin daitezke, online baino ez. Banaketa egunak; martxoaren 27a, 12:00etatik 19:30etara bitartean Olio banatuko da, eta kontserbak berriz maiatzak 29an, eguerdiko 12:00etatik 19:30etara. Bi banaketak Gudari Plazan egingo dira.

'Do it yourself' saioa, ostegunean

ASTIGARRAGA EHUNTZEN DO IT YOURSELF

Datorren ostegunerako, Astigarraga Ehuntzenen bosgarren saioa antolatu da, eta *Do it yourself* izango da. Goizeko 11:30etatik, 14:30etara izango da Galtzaurren.

Martxoak 8rako, material prestaketa

M8 MUGIMENDU FEMINISTA

Datorren asteburuan izango da martxoak 8. Hori dela eta, datorren larunbaterako material prestaketa egiteko zita jarri dute, goizeko 11:00etan Foru plazan. Material prestaketa egin ostean, diana feministaren entsaioa egingo da. Antolatzailerik gomendatu dute zarata egiteko materiala eramatea; kaxa, panderoa, zartagiak, danborrak, txifloak...

Aiztondo Abesbatzak 25 urte

AIZTONDO 25GARREN URTEMUGA

Aurten, Aiztondo Abesbatzaren 25garren urtemuga da, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtean zehar, urte mordo hau ospatzeko asmoz. Aurrenekoa martxoaren 19an izango da, «lau eguneko bidaia bat Gironara», eta han bertan, martxoaren 21ean, «San Feliu Baselizan konzertu bat eskainiko dugu».

Urumea Berri Gastronomi Elkarteko kide izateko aukera dago

Urumea Berri Gastronomi Elkartean bazkide izateko aukera dago, proiektuan bat egiteko izen emate inprimakia deskargatu, datuak bete eta 200 euroko transferentzia egin behar da.

URUMEA BERRI IZEN EMATEA

Astigartar bizilagun talde bat bildu eta proiektu bat jarri dute martxan, «gastronomi kultur elkarte berri bat sortzea herrian» nahi dutela adieraziz.

Eginkizun honetarako, Urumea Berriko, Dia supermerka-

tuaren atzean dagoen lokal bat eskuratzeko negoziaketetan dabilta, Aiotzegi kalean. 180 metro karratuko lokala da eta 115.000 euro eskatzen dituzte. Hori horrela, edozein pauso eman ahal izateko, elkarte sortu dute, eta Urumea Berri Gastronomi Elkarte aukeratu dute,

«lokalaren kokapena kontutan hartuta».

100 bazkideko muga ezarri dute, eta interes gehiago egonez gero, «bilera batean adostuko litzake ea muga hau haunditu daitekeen edo itzarote zerrendan gelditzen diren».

Bazkide izateko epea zabalik dago, horretarako izen emateko inprimakia deskargatu, datuak bete eta 200euroko transferentzia bat egin beharra dago elkartearen kontu-korrontera (zenbakia inprimakian bertan dago). «Lokalaren erosketari au-

rre egiteko jende kopuru nahikoa lortzen ez bada, dirua bueltatuko zaie, pertsona guztiei» adierazi dute. Guzti hau egin ondoren, posta elektronikoz edo zuzenean entregatu beharko dira izen emate inprimakia eta transferentzia ziurtagiria.

Dirua jarri eta atzera bota daietekela ere adierazi dute antolatzailerik, hala ere, «ordainketa hau egin eta bazkide izatera animatu, eta animatuko denari konpomezu pixka bat eskatu nahi diogu, proiektua aurrera joan dadin». **K**

Hutsik dauden lokalak dinamizatzeko, 'Guztion Astigarraga' egitasmoa

Merkataritza lokalen aktibazioa lantzen ari da Astigarragako Udala, eta hilaren 20an, hutsik dauden lokal komertzialen jabeekin bilera batean bildu ziren eta egitasmoaren berri eman zuten.

GUZTION ASTIGARRAGA BILERA

Astigarragako Udala, merkataritza lokalen aktibazioa lantzen ari da, esku artean duen 'Guztion Astigarraga' egitasmoarekin. Hori dela eta, aurreko ostegunean, Astigarragako erdigunean, hutsik dauden lokal komertzialen jabeekin bilera egin zuten. Bertan 6 lokaletako jabeek hartu zuten parte, eta horietatik 5ek programan parte hartzeko nahia adierazi zuten. Gainera, hitzorduak jarri zituzten, guztiek udal teknikariarekin lokal barruetan bisita teknikoak egiteko.

Oraindik aukera dago programan izena eman eta zerbitzuez baliatzeko. Horretarako, eskaera egin daiteke, lokalhutsak@astigarraga.eus helbidera idatziz, edo merkataritza teknikariarekin harremanetan jarriz, 943 50 57 00 telefonoan edo enplegu@astigarraga.eus helbidean.

2019tik, egitasmoari forma ematen

Astigarragako Udalak badarama denbora bat proiektu honi forma ematen, izan ere, 2019an hasi zen Udala jarduerarik gabeko merkataritza lokalen aktibazioa lantzen eta hainbat ja-

berekin harremanetan jartzen. Interesa adierazi zuten jabe horien lokaletan azterketa lanak egin ziren, eta jabeek lokalaren diagnosia eta plana jaso zuten.

Aurten ere, egitasmoan lanean

Hori horrela, aurten ere lanean jarraitzeko asmotan daude. Lokal hutsen poltsa publikoa jasoko duen webgunea ere zabalduko dute laister, «hitzartutako lokalak promozionatzea izango da webgune horren helburua». Udalak, negozio bat irekitzeko lokal bila dabilen ekintzailearekin «zubilanak» egingo ditu, lokala eskaintzen, eta bilatzen dutenen artean harremana bultzatuz. Ildo beretik, «ekintzaileei zuzendutako dirulaguntza lerro bat lantzen ari gara» dio Udalak, nagusiki lokalaren alokairu gastua babestuko duena, hain zuzen. **K**



Javier Montosa doktorea, Itero eta X-Guide puntako tresnak alde banatara dituela.

Teknologia berriena eta konfiantzazko tratua, bezeroaren eskura

HERNANI PUBLIERREPORTAJEA

Esperientzia eta teknologia berriena, modurik onenean uztartzen ditu Alaia Odontologia Zentroak. 2006an zabaldu zituen bere ateak Hernanin, eta orain, 14 urteko ibilbidearekin, azkeneko belaunaldiko bi tresna berri jarri ditu bere pazienteen eskura, haien ahoaren eta hortzen osasuna hobetzeko.

Horietako bat da eskaner intraorala, Itero izenekoa. Gailu elektronikoa da, eta aukera ematen du hortzen inpresio digitalak egiteko, bezeroarentzat metodo tradizionala baino askoz ere erosoagoa den modu batean. Sekulako zehaztasuna eskaintzen du, gainera.

Eta bestea da nabigatutako zirujia, X-Guide izena daukan tresnarekin. Teknologia horren bitartez, inplanteak jartzen dira bere kokalekurik egokienean, alde aurretik planifikatuz ordenagailuarekin, modu digitalean, pazientearen hiru dimentsiotako eskanerra erabilia. Horrela, lortuko da zirujia erosoagoa eta seguruagoa.

Teknologia berriena ez ezik, konfiantzazko lantaldea dauka Alaiak. Hiru odontologo eta zazpi higienista eta laguntzailek osatzen dute taldea, Javier Montosa doktoreak zuzenduta, eta beraien ahaleginak batzen dituzte

zerbitzu osoena eskaintzeko, pazienteei konfiantza sortuko diena. Garbi daukate, ahoaren osasuna ona izatea funtsezkoa dela, osasun orokorra ere ona izateko. Izan ere, ahoaren osasuna ez zaintzeak, lotura zuzena dauka diabetesa eta obesitatea bezalako gaixotasun kroniko batzuekin. Gainera, ahoko edozein infekziok, gaitasun fisikoa eta errendimendua gutxitzen du, egunerokoan kirola egiten duten pertsona horienengan.

Alor guztietan esperientzia zabala daukate Alaiako profesionalek, eta etengabe ari dira formatzen, sektoreko azkeneko tekniken berri izateko. Gainera, ezagutzari, gehitzen diote bezeroaren bisita ahalik eta atsegina izateko ahalegina: erlaxatuta eta lasai egotea bilatzen dute. Horretarako, odontologia zentroa diseinatu dute modu moderno eta minimalista batean, sustatzen duena soilik ahoaren osasun eta estetika-ri eskainitako momentu bat bizitzea.

Ezaugarri guzti horiekin, urteak daramatza Alaiak, Hernaniko eta eskualdeko pazienteak zaintzen. Eta Eusko Jaurlaritzaren Padi programara ere, atxikituta dago. Etorkizunerako helburua ere, garbi daukate: bezeroei kalitaterik oneneko zerbitzua eskaintzen jarraitzea, puntako teknologia baliatuz.

Euskaraldiko aurkezpen ekitaldia, datorren asteartean

Datorren asteartean aurkeztuko dute, 2020ko Euskaraldia. Arratsaldeko 18:45etan izango da aurkezpen ekitaldia, eskolako aretoan.

EUSKARALDIA AURKEZPENEA

Datorren astearterako, 2020ko Euskaldaiari buruzko aurkezpen ekitaldia antolatu dute, *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* lelopean. Arratsaldeko 18:45etan hasiko da aurkezpen ekitaldia, eta eskolako areto nagusian izango du lekua. Udalak, herritar guztiak ekitaldiarekin batzera deitu du.

«Ariketa sozial masiboa»

Euskaraldia, ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko «ariketa sozial masibo bat da», aipatu dute antolatzaileek. Egitasmo honek duen helburu nagusia, herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. «Euskara ulertzea da ariketa egin ahal izateko bete behar den gutxieneko baldintza».

Aurten Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra



2018ko Euskaraldiko aurkezpen ekitaldia, eskolan egin zuten astigartar txikiek.

bitartean egingo da. Aurreko edizioan bezala, ahobizi eta belarriprest izango dira protagonista nagusiak, baina edizio berriak, hainbat berrikuntza eskainiko ditu, «oraingoan 15 egunera luzatuko da, eta hein handi batean, entitateei bideratuko zaie egitasmoa».

2020ko edizioa honetan, norbanakoek ahobizi eta belarriprest lantzeaz gain, taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izango dute, edozein motatako entitateetako kideek euskaraz lasai jarduteko sortutako

guneetan; «Ariguneak, hauxe da aurtengo Euskaraldiaren beste berritasunetako bat».

Udalak, aurtengo edizioa aurkeztuko du martxoaren 3an, eskolako areto nagusian, arratsaldeko 18:45etan, eta herritar guztiei zabaldu nahi die bertaratzeko deia.

«Ekitaldi honetan Euskaraldia landuko duen pertsona aurkeztuko da, eta herriko talde eragilea osatzen hasiko gara». Horrez gain, egitasmo berriak izango dituen faseak azalduko dira. **K**

ALAI
ODONTOLOGIA ZENTROA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA

Asteleheneetik ostiralera: 08:30 - 21:00 / Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73
www.alaiaclinica.com alaihernani@gmail.com

Futbol zelaiaren eremua behar ezberdinak asetzeko egokitzea, 2020ko asmo potoloa

Zaharkitua dagoela eta, berritu eta jarduera ezberdinetarako prestatu nahi dute. Hiru proiektu eskatu ditu Auzo Udalak, eta horien artean bat aukeratuko du, auzotarrekin. Asmoa da, «ondo joanez gero», aurten hastea lanak.

EREÑOTZU AUZO UDALA

2019aren balantzea egin, eta 2020ko asmoa heldu die, azkeneko aste hauetan, Ereñotzuko Auzo Udalak. Eta hori guztiaren berri emateko, batzarra deitu zuten orain bi aste, auzotar guztiak gonbidatuta.

Behin ereñotzuarrak jakinaren gainean jarrita, Kronikari azaldu dizkio egindakoak eta asmo berriak, Unai Erroitzenea alkateak.

Denda prestatzeko lanak, eta bide zein lokaletan konponketa zein hobekuntzak, 2019an

727.430,18 euroko aurrekontua izan zuen Auzo Udalak, 2019an. Ohi bezala, Hernaniko Udaltetik zetorkion aurrekontua izan zen zatirik haundiena, 419.871 euro (Foru Arauak emandako formulatik kalkulatu da, Hernaniko Udalaren gastu partiden proportzionala). Eta gainerakoa, 2018tik zetorren gerakinak (219.085,96 euro), tasek eta Eusko Jaurlearitzak bi egitasmotarako emandako dirulaguntzek (84.473,22 euro) osatu zuten.

Aurrekontu horretan, inbertsioetarako 122.000 euro zeuzkan jasota Auzo Udalak, baina gerakinarekin eta dirulaguntzekin, 220.891,42 euro inbertitu ditu azkenean. Horrela, hasteko, Epeleko Torreko bidea asfaltatu zuten (20.109 euro), Hernanitik Ereñotzura bidean Epelera aurreneko sarrera dena: «berez pribatua da, baina erabilera publikokoa izan da beti. Jabeekin hitzarmena egin genuen, eta hormigoizko bidea izaratu xamar zegoela eta, asfaltatu egin genuen. Orain, pendiente daukagu argiteria jartzea, eta 2020an egingo dugu».

Iturraldeko bidean ere egin zituzten konponketak (9.866 euro). Izan ere, 2018ko lurjausiaren ondoren, Hernaniko Udalak hartu zuen bere gain konponketa, baina akatsen bat izan zen obran, eta kurba batean petrila jarri zutela eta, Iturraldera zihoazen hornitzaileek, kamionetek, ezin zuten maniobratu. Hori konpontzeko, kurbaren bukaeran zabalgun bat egin du Auzo Udalak, bere gain hartuta.

Larre Gaingo bidean ere egin dute lanik, babes hesiak jarrita (5.425 euro), zonalde batzuetan bidea zabaltzeko lanak egin ondoren, «nahiko expuesto» geratu zelako toki batzuetan.

Eta Aparraingo bidean ere egin zituzten asfaltatze lanak (61.748 euro), 2016an egindakoari segida eman eta zati osoa bukatzeko. Pikoetxeberritik hurrengo baserrira doan zatia da, asfaltatu dutena: «dirulaguntza eskatu genuen horretarako, baina ez ziguten eman. Inbertsio haundia izan da, baina marjina bage-neukanez, egitea erabaki dugu». Bukatu berri dituzte lanak.

Oinezko bide batean ere izan da berrikuntzarik: Ereñotzutik Fagollagara doan atzeko bidean, bi banku eta seinaleak jarri dituzte (1.212,42 euro).

Baina bideetan ez ezik, eraikin eta lokaletan ere izan dira obrak. Batetik, Txirrita eskolan, haur eskolako lurra aldatu dute: «parket moduko bat jarri da, goxoagoa izateko». Eta margoketa lanak ere egin dituzte. Guztira, 13.244 euro izan dira. Bestetik,

«Presa botako da, baina guri geratuko zaigu kanal bat, auzoa eta ibaiaren artean. Gainean egon beharko dugu, auzoarentzat probetxuzko zerbait lortzeko»

futbol zelaiaren ondoan Auzo Udalak erosi zuen lokala txukuntzeko lanei ekin diete, bertan materiala gordetzeko (9.596 euro). Aurreko astean hasi ziren lanak, baina 2019ko aurrekontuan daude jasota.

Eta azkenik, iazko inbertsio nagusia dendakoa izan zen: lokala berritu eta egokitze lanak egin (74.294 euro) eta ekipamendua erostea (25.397 euro). «Proiektu garrantzitsua izan da Auzo Udalarentzat. Obra egitea, eta kamara, altzari eta apalak erostea, dena hartu du bere gain Auzo Udalak; ia 100.000 euro».



Unai Erroitzenea alkatea, Auzo Udaleko bulegoan.

Ohiko jarduera eta dirulaguntzek, segida

Ezohiko inbertsio horietatik harago, segida eman die Auzo Udalak, ohiko ekintza zein jardueri, eta ematen dituen dirulaguntzei. Eta 2019an bezala, 2020an ere mantenduko dira denak.

Horrela, ez dira faltako Artetik taldeak astearte arratsaldero eskainitako ikastaroak, Atsolorra, eta Olak Auzo Elkarteak bideratzen dituen ekintza eta zerbitzuak: San Antonio jaiak, Udazken Kulturala, mendi ibilaldiak, ikastaroak, uztailako kontzertuak Irrintzi tabernan, Berriketan egitasmoa, haur zaintza zerbitzua, Gazte Txokoa, udalekuak... Hori guztia aurrera eramateko, 30.000 euroko dirulaguntza jaso zuen Olak Auzo Elkarteak 2019an, eta mantendu egingo da aurten.

Ohiko aurrekontua, %5,5 txikiagoa 2020an

Egitasmoek eta dirulaguntzek bezala, ez dute aldaketa nabarmenik izango 2020rako Auzo Udalaren kontuek. Dena den, jaitsi egin da ohiko aurrekontua, Hernaniko Udaltetik jasotzen duena, Udalaren aurrekontua ere jaitsi egin delako, bereziki inbertsioen partidan. Zehazki, 396.907 eurokoa da ohiko aurrekontu hori, 2019an baino %5,5 txikiagoa.

Aurrekontua guztira zenbatekoa izango den, ordea, oraindik ez dakite: «kontuhartzaileak martxoaren erdialdera itxiko ditu 2019ko kontuak, eta orduan jakingo dugu zenbatekoa den gerakina. Aurreikusitako dugu, iazkoaren antzekoa izango dela. Eta dirulaguntzak ere, eskatze-ko asmoa daukagu, pare bat egitasmotarako behintzat», azaldu du Unai Erroitzenea.

«Enpresa bat kontratatu dugu hiru proposamen lantzeko, futbol zelaiaren eremuan zer egin erabakitzeko»

Inbertsioetarako, 102.000 euroko partida jaso dute ohiko aurrekontuan, baina gerakinaren eta dirulaguntzen arabera, marjen haundiagoa izango dute, aurreikusitako lanak aurrera eramateko. Horien artean dago Epeleko Torreko bideko argiteria jartzea, eta herri bideetan konponketak egitea, asfaltatuta bai baina egoera kaxkarragoan daudenetan.

Aurtengo nobedadea eta inbertsio potoloena, ordea, izango da futbol zelaiaren eremua berritzea, eta jarduera eta behar ezberdinetarako prestatu eta egokitzea. «Zaharkituta eta erabat erabileratik kanpo geratu zaigu, auzotar guztiak frontoia- ren inguruan elkartzen baitira orain. Eta segurtasunaren ikuspegitik ere ez dago ondo; sareak eta posteak erdoilduta daude. Bueltatuta eman nahi diogu, eta horretarako, azterketa bat eskatu genuen. Baina gehiago zegoen bideratuta, irudikatzen zer izan behar zuen eremu horrek, eta guk zerbait bisualagoa nahi genuen. Horregatik, urte bukaeran, enpresa bati eskatu genion exekuzio proiektu bat egitea: hiru proposamen aurkeztu ditzala eremu horretarako, aurreko azterketan ateratuko beharrik kontuan hartuz».

Hiru horietatik bat aukeratu du Auzo Udalak, auzotarrekin batera, egingo duten batzar batean. Bertan ase daitezkeen beharren artean, aipatu dira helduak oinez ibiltzeko zirkuituren bat egitea, ariketa fisikoa egiteko makinak jartzea, noizean behin aparkaleku bezala ere erabiltzen da, kirol ekitaldi batzuetarako ere bai...

«Hortik zer aterako den ez dakigu, baina behin erabakita, asmoa da 2020an egiten hastea, gauzak ondo joanez gero», aurreratu du alkateak.

Eta lanei dagokienez, presaren eta zentralaren pendiente ere egongo dira: «presa botako da, baina guri kanal bat geratuko zaigu, auzoa eta ibaiaren arteko komunikazioa eteten duena. Geratuko zaigu herentzia bat, arazo fokoa izaten dena, zinkeria pilatzen delako, besteak beste. Beraz, prozesuan zehar gainean egon beharko dugu, auzoarentzat probetxuzko zerbait lortzeko. Hernaniko eta Errenteriako udalekin hizketan ari gara, eta gu esfortzu bat egiteko prest gaude, baina aprobetxatu beharko ditugu sinergiak. Adibidez, oinezko bide bilakatu dezakegu, presatik zentraleraino, edo auskalo».

Zentralaren kasuan ere, ikusi beharko dute «zer egin daitekeen. Oso egoera txarrean dago, sare batekin inguratuta, eta noizean behin teilatu zatiak erortzen dira...».

'Burbunak eta Etsayak' liburua argitaratzeko, partida

Beste egitasmo berezi bat ere badauka Auzo Udalak esku artean, 2020rako. Izan ere, *Burbunak eta Etsayak* liburua argitaratuko du, 2015eko dokumentalaren il-dotik, bertako natura eta ahozko ondareari buruz: «Eñaut Agirre, Iñaki Sanz-Azkue eta konpainiak, dokumentala egiteko, informazio pila bat jaso zuten, argitaratu atera ez zena, eta pena ematen die hori galtzeak. Horregatik, liburua argitaratu nahi dute. Hitzarmena egingo dugu aurten; Dobera arduratuko da lanketaz, eta Auzo Udalak hartuko du bere gain argitalpena». K

Kontuen Egunarekin borobilduko dituzte Inauteriak gaur, Goizuetan

Igandea txarangak girotuko du eguna, eguerdi eta arratsaldean.

GOIZUETA INAUTERIAK

Bukatu dira Goizuetako Inauteriak ere. Baina, dena ondo ixteko, kontuak eginen dituzte gaur, eta aitzakia horrekin, festa beste pixka bat luzatuko da. Eguerdiko 13:00ean hasiko dira poteoan, Igandea txarangarekin, eta bazkaritarako bilduko dira mozorroak. Arratsaldean ere, Igandea txarangak girotuko du herria, festak ondo agurtzeko.

Aurreko egunetan, hala ere, izan dute zerekin gozatu, baita ere. Mozorroak asteartean atera ziren dantzara, herrian barrena, eta ondo bazkaldu ondoren, zahagi dantzari ekin zioten, igandean gaztetxoek egin zuten bezala. Baina dantzari ez gain, mariatxi, sorgin, mamu harrapakari eta abarrek hartu zuten herria, bezperan zirkuak bezala! **K**

INAUTERIETAKO KONTUEN EGUNA

GAUR

13:00 Poteoa, 'Igandea' txarangarekin.

14:30 Mozorroen bazkaria.

17:30etatik aurrera 'Igandea' txaranga herrian zehar.



Mariatxi, ijito, trafiko zuzentzaile eta beste hainbat bisitari ibili ziren asteartean.



Zahagi dantzarako indarrak biltzeko nahikoa jaki bildu zituzten mozorroek.

Bailarako lau bikote ariko dira gaur, lurraldekako mus finaletako lehian

Ereñotzuko bi bikote, Goizuetako bat eta Hernaniko beste bat ariko dira, Seguran eta Iruñean

URUMEA EH-KO MUS TXAPELKETA

Lurraldeetako finalak jokatu dira gaur, Euskal Herriko Mus Txapelketaren barruan, eta Urumea bailarako herriek badute ordezkaritza: Nafarroak bat, eta Gipuzkoak, hiru; Hernaniko bat eta Ereñotzuko bi.

Iruñean eta Seguran

Nafarroako finalerako pasea lortu zutenak Itsaso Lujanbio eta Nekane Elizalde izan ziren, Goizuetan irabazita. Gaur, goizeko 08:30etan hasita, Iruñeako Alde Zaharreko



Itsaso Lujanbiok eta Nekane Elizaldek ordezkatu dute Goizuetan, Nafarroan.

Arrano elkartearen jokatu dute Nafarroa Garaiko finala, Euskal Herriko mus txapelketaren barruan, eta Urumea bailarako herriek badute ordezkaritza: Nafarroak bat, eta Gipuzkoak, hiru; Hernaniko bat eta Ereñotzuko bi.

Gipuzkoako finala, berriz, Seguran, Baratzte frontoian jokatu da, arratsaldeko 15:00etan

hasita, eta 118 bikote ariko dira bertan. Tartean, Ereñotzuko kanporaketan aurreneko bi postuetan geratu ziren Anjel Pikabea eta Pepe Kaloka bikotea eta Felix eta Ander Polaina bikotea; eta Hernanitik, Gari Pascual eta Joxemi Aierbe. **K**

Erakusketa parte-hartzailea, emakumeen inguruan

Martxoaren 16ra arte, emakume* hitzarekin lotutako edozein motako lanak aurkeztu daitezke, erakusketarako.

GOIZUETA MUGIMENDU FEMINISTA

Erakusketa parte-hartzailea jarri dute martxan Leitzaldeko eta Goizuetako mugimendu feministek, elkarlanean. Zer da zuretzat emakumea*? galderari erantzuten dioten lanak aurkeztu ditzake parte hartu nahi duen edonork.

Lanak, mota guztietakoak

Jarriko den erakusketa parte-hartzailea izatea nahi denez, edonork aurkeztu ditzake erakusketa hori osatzeko lanak. Lan horiek, gainera, edozein

motakoak izan daitezke: helburua da emakume* hitzak burura ekartzen duen hori nahi den diziplina artistiko erabilita azaltzea: bertso, ilustrazio, poesia, argazki, collage... edo beste edozein motako lanen bidez, hain zuzen.

Hauek, martxoaren 16ra arte entregatu ahal izanen dira, ondorengo tokietan: Goizuetako kafetegi edo estankotan, Leitzako Torrean edo sastrakak@gmail.com helbide elektronikoan.

Ondoren, erakusketa

Jasotako lanekin bi erakusketa jartzea aurreikusten da. Bata, Goizuetan, martxoaren 23tik 29ra bitartean, labaderoan.

Harekin bukatuta, lanak Leitzara eramanen dira, eta erakusketa ikusi ahal izanen da martxoaren 30etik apirilaren 5era bitartean, Atekabeltzen. **K**



Suhiltzaile boluntarioak ibili dira erreketak kontrolatzen. Argazkia: Ttipi Ttapa.

Sasiak erretzen, larreak hobetzeko

GOIZUETA UDALA

Oronozko Baso Suhiltzaileek kontrolatuta, sasiak erre dira Goizuetan, Tartazu auzoan, Santa Kruz gainean. Helburua

izan da, «larreak hobetzea». Oronozkoekin, herriko suhiltzaile boluntarioak eta baso-suteen prebentzio integraleko ekipoak aritu dira lanean.

Ipuin eta otorduak, Martxoaren 8rako

ARANO-GOIZUETA MARTXOAK 8

Emakume Langileen Nazioarteko Eguren harira, hainbat ekitaldi antolatu dira. Horietako bat, Zer da zuretzat emakumea*? galderari erantzuten dion erakusketa parte-hartzailea. Horrez gain, martxoaren 7an Denborak ahaztutakoak helduentzako ipuin musikatua kontatuko dute Ameli eta Xirrikietuen jostunek Aranon, 20:00etan, eta emakume afaria eginen dute gero. Goizuetan, egun berean, Munduko emakumeak kontatuko dute, 17:00etan, eta emakumeen otordua ere eginen dute.

Zerbitzuetako langilea kontratatuko da

GOIZUETA UDALA

Goizuetako Udalak zerbitzu anitzetako langile bat kontratatuko du administrazioak agindutako hainbat lan egiteko: elektrizitate, igeltsero, pintura, arotz, soldadura, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta ixteko, bide-garbiketa, baso eta beste hainbat lanetarako. Izena eman nahi dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (INEM) altan egon behar dute, edo lanean ari direnek, *mejora de empleo* atalean izena emanda. Eskerak martxoaren 6ra arte egin daitezke Udalean.

«Taldea hazi egin da, asko, astez aste»

Ohorezko Erregionaleko taldea ezin hobeto ari da. Azkena berdindu arren, 6 partidu jarraian irabazi ditu, eta hirugarrena da sailkapenean. Gaur, 16:30etan Zubipen, Real Unionen kontra jokatuko du.

HERNANI FUTBOLA

Partiduz partidu jokatzeari eman dio garrantzia CD Hernaniko Ohorezko Erregionaleko futbol taldeak, eta argi dago asmatu duela. «Lehiakortasuna haunditu da» Bittor Loran eta Aitor Elizalde kapitainen esanetan, eta «entrenamenduetan egon da giltza» Unai Munduate entrenatzailearen ustetan.

Sei partidu segidan irabazita, eta Zarautzen kontrakoa berdinduta, hirugarren dira. Gaur, Real Unionen kontra jokatuko dute Zubipen, 16:30etan.

Denboraldi hasieran taldea egitea zenuten helburu. Zein da orain egoera?

Unai Munduate: Beti bezala, hasieran, proiektu berri batean sartzean, lehenengo helburuak horiek izan behar dira: taldearen kohesioa, jokalaria ezagutzera eta martxan jartzea, jakinda, gero, lehiatzera gindoazela. Gauza batek ez zuen bestea kentzen. Eta uste dut guztiz bete dugula. Entrenatzaile eta lan talde bezala oso gustora gaude, bai sortu den giroarekin, bai jendearen konpromisoarekin. Hernaniarrek eta etorri diren jokalariek oso ondo konektatu dute. Horri garrantzia haundia ematen diogu. Gainera, lehian oso ondo ari dira. Taldea hazi egin da, asko, astez aste. Ondorioz, nire ustez merezita, hor gaude, aurreko pelotoi horretan. Hortik aurrera, jarraitu besterik ez dago!

Entrenatzaileen artean, klubean, badago elkar ulertze bat? Talde lana?

U.M.: Bai. Guk erlazio haundiena preferenteekin daukagu. Hernanin senior mailan bi talde daude. Jubenilekin ere badugu erlazioa, baina beraiek beraien helburuak dauzkate, eta ez ditugu beraien jokalariai erabiltzen, gutxienez, liga bukatu arte. Bigarren taldearekin bai daukagula harreman estuago bat. Hor badaude jokalariek batzuk gora eta behera ibiltzen direnak, gurekin entrenatzen dutenak. Klubeko erlazioa zentzu horretan estua da, eta naturala.

Kapitain bezala, nola ikusten duzue taldea?

Bittor Loran: Bloke erdia baino gehiago mantendu egin da. Kanpotik etorritako jendea, berriz, bileretan hitz egin zenaren arabera aukeratu da; ez bakarrik futbol ikuspegia kontuan hartuta, baizik eta ikuspegi gi-



Unai Munduate entrenatzailea, eta Bittor Loran eta Aitor Elizalde kapitainak «taldean bat gehiago» dira.

zatiarretik. Ekarrirako jendea oso ondo sartu da taldean hasieratik. Alde horretatik, gu oso gustora gaude. Eta futbolari begira, orain ezin hobeto gabiltza, bolada onean. Oso gustora.

Aitor Elizalde: Oso talde giro ona daukagu. Talde bat gara. Batzuetan gertatu daiteke talde txikiak sortzea eta batzuekin hobeto moldatzea. Guk harremana denok batera daukagu eta hori garrantzitsua da.

Kapitain postuan ondo moldatu zarete?

A.E.: Azken urteetan beterrano askok utzi dute, eta gu geratu gara, 24 urterekin beterrano. Ekipo gaztea daukagu.

U.M.: Birsorkuntza fase batean gaude. Kapitainak gazteak dira eta ekipoa ere bai.

B.L.: Kapitainak dauka besokoa, baina jende gehiago dago taldean kapitain dena. Talde bat ez da bat edo bi.

A.E.: Taldean bat gehiago gara, ez gara inor baino gehiago. Uste dut ondo daramagula.

Hobekuntza nabaria izan duzue. Partiduz partidu lan egitea izan da giltza?

B.L.: Horiek esanak besterik ez dira. Orain bolada onean gaude. Uste dut lehengo urtetik izan dugun aldaketa haundiena lehiakortasunean egon dela. Iaz ez ginen hainbeste, beti jokatuko prest. Aurten bagaude 20 pertsona, eta denok jokatu dezakegu. Aldaketa asko izaten dira hamaikakoan, batez ere goian, zelai erditik aurrera. Defentsan agian gutxiago. Baina, jakinda gaizki entrenatuz gero, agian larunbatean ez duzula jokatuko, gehiago

«Zure maila ematea, ez dago besterik.

Aurkariak ere berea egiten du»

estutzen duzu. Uste dut hori nabaritu dudala gehien, hobetze aldera, entrenamendu mailan.

A.E.: Gainera, orain lesio batzuk izan ditugu inportanteak, titular batzuenak, eta plantila luzea edukita, maila ez dugu jaisten. Hor mantentzen dugu eta segitu dugu ondo lehiatzen horri esker.

Bigarren itzulia ederki dijoo. Lehen galdutakoak irabazi dituzue. Bolada mantentzeko moduan zaudete?

B.L.: Sailkapenari erreparatu gero, puntu gehien azpiko hamarren kontra utzi ditugu. Ez zaio asko begiratu behar; edozeinek irabazi diezazuke. Partidu guztiak serio hartzen ditugu, aste osoa ematen dugu partidu bakoitza prestatzen. Azken bos ten arteko hiruren kontra, adibidez, ez dugu irabazi.

A.E.: Kategoria oso parekatua da. Ez bazara topera ateratzen partidu guztietan eta gauzak ondo egiten, edozeinek irabazi diezazuke. Guk ondo egiten dugu, nire ustez, partiduz partidu entrenatzea. Ez dugu pentsatzen hemendik bi astera daukagunean. Kontzentratzen gara astekoan. Uste dut hor asmatzen ari garela.

Denboraldi bukaerarako helbururik jarri duzue? Amestu daiteke?

U.M.: Amestu... ez dakit. Partidu guztiak irabazteko gaitasuna daukagu. Baina galtzeko ere bai!

Oso parekatua dago dena. Sei partidu atera ditugu, eta positibo izan behar dugu. Baina horietatik lautan gol bateko diferentzia atera dugu. Horrek zerbait esan nahi du, onerako eta txarrerako. Zerbaiti esker lortzen dugu hori orain azken minutuetan, baina beste partidu batzuetan aurka izan dugu. Ezin duzu hainbeste erotu. Noski, borroka horretan bagaude, argi dago hor jarraitzeko asmoa daukagula. Baina sartu zaitezke bolada txarrean. Giltza da oso ondo entrenatzen ari garela, eta frogatu da denboraldian zehar; 20 jokalariek daukagu hamaikakoan jokatuko prest. Bajak izan direnean ere, taldea oso ondo lehiatu da. Niretzat oso inportantea da ligan; plantila hori edukitzeak asko egiten du. Joan behar dugu partiduz partidu, pixkanaka, eta disfrutatzen. Garrantzitsua da bidez disfrutatzea, azkenean, saria bakarrak baitauka. Zure maila ematea, ez dago besterik. Aurkariak ere berea egiten du.

Afizioa ere bolada onean dago?

B.L.: Hasieran agian ez zen hainbeste jende jaisten, eta orain nabari da jende gehiago etortzen dela. Ilusio haundiagoa ere nabari da inguruan, eta horrek motibatzen gaitu.

U.M.: Jendea animatu nahi dugu, ahal den heinean. Etxean, gainera, oso ondo ari gara. Kanpoan ere bai, baina, bereziki, etxean; Zubipe zelai zaila izaten da aurkariarentzako. Entzun dugu jendea gustora etortzen dela ikustera dagoen erritmoa, intentsitatea, maila, nola jokatzen dugun. Ea bigarren buelta honetan, etxean jokatuko ditugun partiduetara etortzen diren! **K**

Zortzi batel gaur, seigarren jardunaldian

HERNANI ARRAUNA

Gipuzkoako Batel Ligako seigarren jardunaldia gaur jokatuko da, 17:00etan Erreterian. Bertan izango dira Hernani Arraun Elkarteko zortzi batel. Infantiletan, nesken bi batelek eta mutilen batek hartuko dute parte; promesetan, nesken bik; kadeteetan, mutilen batek; eta jubenetan, mutilen beste bik. Sailkapenari dagokionez, promesetako nesken aurreneko taldea dabil finen; 20 batelen artean bosgarren dijoo, aurreneko sailkatuarengandik, San Juanengandik 15 puntutara. Gertu ditu, hala ere, Hibaika, puntu bat gehiagorekin, eta Orio, bi puntu gutxiagorekin. Gaurkoaz gain, beste hiru jardunaldi geratzen dira oraindik Liga bukatzeko, eta lanean segiko dute neska-mutilek.

Etxean ariko dira talde gehienak

ASTIGARRAGA-HERNANI ESKUBALDIA

Mundarroko eskubaloi taldeko neska jubentiek bihar jokatuko dute asteburuko partidua. Etxean ariko dira, Astigarragako kiroldegian, eta 11:00etan jokatuko dute Mecalbe Eibarren kontra. Hernaniko gorengo taldeei dagokionez, berriz, jubentietako neskek atzo zuten partidua, eta mutilek, gaur jokatuko dute, etxean baita ere, 12:30etan Tolosaren kontra. Kedeteetan, neskek atsedena izango dute, eta mutiletan, Akola taldeak etxean jokatuko du bihar, 12:00etan, Aloñamendiren kontra, eta Sorlan gaur ariko da, Leizaranen kontra Andoainean, 16:00etan. Infantiletan, mutilen Goiz Argi taldea etxean ariko da bihar 10:15etan, Urolaren kontra; Leoka ere bihar, 09:30etan La Sallen, Saiekoren kontra. Eta nesken Sesa Tools gaur, Andoainean 10:30etan, Leizaranen kontra.

Etxean, Mundarro eta Hernani

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALDIA

Mundarroko neskek atzo jokatu zuten Lila Takeren kontra, asteburuko jardunaldia. Mutilek, berriz, gaur jokatuko dute, etxean, Donosti Dolphins taldearen kontra. Norgehiagoka 18:00etan hasiko da. Hernaniarrak ere, etxean ariko dira, eta arratsaldeko 18:00etan, baita ere; Oiartzun izango dute aurkari.

Urrezko Erremontea Saria nork irabaziko duen argituko da gaur

Erremontearen Eguna da gaurkoa Galarretan. Arratsaldeko 16:00etan hasita, partidu ikusgarriak, musika eta luntxa ere izango dira, doan.

HERNANI ERREMONTEA

Hiru partidu ikusgarri eta jan-edana, musika eta festa giroarekin gozatzeko aukera izango da gaur arratsaldean Galarretako frontoian. Izan ere, Erremontearen Eguna ospatuko da, 16:00etatik aurrera. Herritar guztiak daude parte hartu eta gozatzera gonbidatuta. Hori horrela, sarrerara doan izango da gerturatzen diren guztientzat.

Era berean, erremontisten artean sariak ere banatuko dira; tartean, Urrezko Erremontea Saria.

Hiru partiduetan bigarrenen, Barrenetxea eta Urriza hirukoaren kontra

Jaialdia hasteko, hiru partidurekin gozatu ahal izango da. Aurrena, Aldabe eta Arruarterek osatutako bikotearen eta Goikoetxea V eta Zubirik osatutakoaren arteko partidua jokatuko da. Segidan, Urriza eta



Gaurko saria irabazteko aukera du Barrenetxeak, Buruz Burukoa ere irabazita.

Endika Barrenetxea hernaniarrak jokatuko dute, Juanenea, Ezkurra II eta Ionek osatutako hirukotearen kontra. Ez ohiko partidua ikusteko aukera izango da, beraz.

Azkenik, Segurola eta Azpirozek osatutako bikoteak eta Matxin III eta Larrañagak osatutakoak jokatuko dute elkarren kontra.

Zozketak, sariak eta luntxa

Jaialdia borobiltzeko, musika eta luntxa izango dira gertu-

ratzen diren guztientzako, eta baita sariak ere; batzuk, erremontistentzako, baina besteak, ikusleentzako. Hainbat zozketa egingo dira.

Erremontisten artean, A eta B kategorietako erremontista erregularrenen sariak banatuko dira batetik. Baina, bestetik, baita Urrezko Erremontea Saria ere. Iaz Urriza izan zen sari berezi honen irabazlea. Aurtengoan, ohore hori Endika Barrenetxea hernaniarrak jaso dezake, denboraldi bikaina egin baitu. **K**

Donosti eta Tilosaren aurka, gaurkoan

Seniorretako bi taldeek ez dute partidurik jokatuko asteburuan. Kadete eta infantilek gaur jokatuko dute; bik etxean, eta beste biek kanpoan.

HERNANI BOLEIBOLA

Atsedenerako tartea izango dute asteburuan, Heraniko boleibol elkartereko talde beteteranoek, bai nesketan eta baita mutiletan ere.

Jokatuko dutenak, kadete eta infantiletako neskek izango dira.

Aurrenekoa jokatzen, eta etxean, infantiletako nesken 1 taldea izango da: 10:00etan jokatuko du Summa Aldapetaren aurka. Bigarren taldea ere gaur 10:00etan ariko da, baina Tolosan, Laskorain taldearen aurka.

Kadeteetako bi taldeek ere gaur jokatuko dute, eta batek

kanpoan aritu beharko du: bigarren taldea Donostiako Pio Baroja kiroldegira joango da, 12:30etan Fortunaren aurkako norgehiagoka jokatuz. Kadeteetako nesken aurreneko taldea, berriz, etxean ariko da, 10:00etan, infantilak bezala, Summa Aldapetaren kontra. **K**



Finalerdia jokatuko du Arrietak gaur, elite mailan.

Hainbat finalerdi jokoan, pelotari eta palistek

Trinketean, gaur eta bihar izango dira, Iruran. Palistek Euskal Herrikoan eta Udaberri Sarian dauzkate zitak. Goizuetarrek, Leitza.

URUMEA ESKU PELOTA-PALA

Hitzordu bereziz betetako asteburua dute hau bailarako esku pelotari eta palistek. CD Hernaniko esku pelotariak 21 partidu jokatuko dituzte, txapelketa ofizial eta pribatuak barne, eta horien artean, hiru finalerdi eta sailkapen fasea gainditzeko beste hiru partidu. Palista hernaniarrak, berriz, txapelketa desberdinetan jokatuko dute, finalera sailkatzeko ahaleginean.

Goizuetarrak, berriz, Mendialdeko Binakako I. Pilota Txapelketan ari dira, eta finalerdiak jokatuko dituzte asteburuan. Aurrenekoak, atzo jokatu zituzten.

Trinketean, hiru hitzordu

Hernaniarrak hasita, klubeko bi bikote izan dira aurrez aurre Gipuzkoako trinkete finalerdietan aurrenekoan. Ostegunean jokatu zuten elkarren kontra Mujika eta Oiartzabalek eta Insausti II eta Lasak, jubentzetan, eta aurrenekoak izan ziren txapelkun, 40 eta 30.

Beste bi finalerdiak asteburuan jokatuko dira. Gaur, 18:00etan hasita, Iruran, seniorretako bigarren mailako Pagola eta Alvarez ariko dira, Arizmendi-Aldunberri bikotearen kontra; Hernanikoak elkarren aurka ariko dira, berriro. Eta gauza bera, hirugarren finalerdian ere: Hernaniko Alegria eta Arluziaga eta Manterola eta Urdanpilletak jokatuko dute elkarren

kontra, kadeteetan, 11:00etan Iruran.

Finalerako pasearen bila, Udaberrikoan

Beste hiru hitzordu garrantzitsu ere badituzte hernaniarrak asteburuan, kasu honetan, Udaberri Txapelketan. Sailkapen faseko azken partiduak jokatuko dituzte, finaleko fasera pasatzeko lehian.

Kadeteetan atzo ziren jokatzeak Deskarga eta Alegria, Intxurreren kontra, eta jubentzetan, Uitzeta eta Insausti II, Tolosaren kontra.

Gaur Apaolaza eta Oiartzabal jubentzetan jokatuko dute, Alegria Intxurreren kontra, 18:00etan Hernanin bertan.

Hiru finalerdi, palistek

Hernaniarekin segiz, palistek hiru finalerdi jokatuko dituzte; hirurak, gaur.

Irekia Txapelketan, elite mailan, Ariane Arrietak finalerdia jokatuko du Galdosekin, 17:00etan Mallabian. Murillo-Saez bikotea izango dute aurkari.

Euskal Herriko Irekian, baita ere, jubentzetan ari diren Garazi eta Olatz kadeteek finalerdia jokatuko dute Alegria, 16:00etan.

Eta Irati, Nahia eta Joanak Zumaia izango dute aurkari Udaberri Sarian, 09:15.

Goizuetarrak ere, finalerdietan

Zita bereziak dauzkate goizuetarrek ere. Mendialdeko Binakoan ari dira, eta finalerdiak jokatuko dituzte. Atzo bi jokatu zituzten etxean. Gaur, Leitza ariko dira 16:30etan Apezetxea kimua eta Legarreta, haurretan. Larraun eta Aurrera izanen dituzte aurkari. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean kamarer@ baten bila gabiltza. Urte osoko lana.
Email: landepartamendua@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EGURALDIA

GAUR



Epeletik esnatuko du egunak, hego-mendebaldeko haize zakarraren eraginez, baina fronte batek euria ekarriko du. Zaparrada mardulak ere espero dira.
Min.10° / Max.16°

BIHAR



Bezperak bezala, hego-mendebaldeko haizeak joko du goizean, baina eguerdian eta arratsaldean euritara joko du.
Min.10° / Max.17°

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Burgosera bihar, lanerako gogo eta indarra galdu gabe

Ohorezko Mailako errugbilariek UBU-Colina Klinik taldeari egingo diote aurre bihar, 12:15etan. Bestalde, desgaitasuna duten gazteei zuzendutako topaketa egingo da bihar Landaren, goizeko 11:00etan hasita.

HERNANI ERRUGBIA

Denboraldi hasieran parekatua izan zen Hernaniko eta Burgos-eko errugbilarien arteko partidua, eta Polidoriren mutilak lanerako gogo horri eutsita joango dira bihar Burgosera. Eguerdiko 12:15etan hasita jokatuko dute norgehiagoka, bi taldeek. Hernaniarren egoera uste baino zailagoa da, baina ez dituzte galdu lan egiteko gogo eta indarra, eta gogor borrokatuko dute bihar ere. Ohorezko Mailako taldeaz gain, 23 urtez azpiko taldea ere

joango da, eta 10:15etan jokatuko du Burgos enkontra, baita ere. Aurrekoan erraz irabazi zuten hernaniarrek, eta denboraldia borobiltzen segitzeko asmoz egingo dute bidaia.

Gainontzeko taldeek ez dute partidurik jokatuko jardunaldi honetan, kasu batzuetan, atsedena dutelako, eta beste batzuetan, jardunaldiari dagokion partidua jokatuta daukatelako.

Landaren bihar, topaketak

Biharko beste hitzordua Landa-



Burgosen kontra Landaren jokatutako partidua nahiko parekatua izan zen.

ren izango da: oinez dabilen desgaitasuna duten haur eta gazteei zuzendutako topaketak egingo dira.

Elkartzeko ordua 11:00etan jarri dute, Landaren bertan, eta 11:30etan errugbi saioari ekingo diote. Hori bukatuta, hirugarren

denborari emango diote hasiera 13:30etan. Eta segidan, indarrak hartzeko aukera izango dute. Izan ere, pikoteoa eta makarroiak izango dituzte aukeran.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin elkarlanean

antolatu du ekitaldia Hernani Errugbi elkarteak, eta parte hartzera animatzeko dei egin diete haur eta gazte guztiei. Izena emateko, email bat idatzi behar da ondorengo helbide elektronikora: eskolaegokituak@gkef-fgda.org. **K**

FUTBOLA			
EMK. EUSKAL LIGA	Hernani-Sestao River	Zubipen	Bihar 18:30
MUT. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Real Union	Zubipen	Gaur 16:30
EMK. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Tolosa	Zubipen	Bihar 18:30
MUT. GORENGOA	Santo Tomas-Mundarro	Berion	Gaur 15:30
MUT. GORENGOA	Hernani-Deusto Donostia	Zubipen	Gaur 18:30
MUT. 1. ERREGIONALAK	Mundarro-Pasaia	Zarkumendegin	Gaur 15:30
MUT. JUB. NAZIONAL LIGA	Hernani-Tolosa	Zubipen	Gaur 12:00
MUT. OHOREZKO JUB.	Mundarro-Touring	Zarkumendegin	Bihar 12:00
MUT. OHOREZKO JUB.	Hondarribia-Hernani	Ondartzan	Bihar 11:30
MUT. 1. JUBENILAK	Mundarro-Sanpedrotarra	Zarkumendegin	Gaur 12:30
MUT. 1. JUBENILAK	Hernani-Sanse A	Zubipen	Gaur 10:00
EMK. OHOR. KADETEAK	Zarautz-Hernani	Asti Txikin	Bihar 12:30
MUT. OHOR. KADETEAK	Hernani-Mundarro	Zubipen	Bihar 12:00
MUT. 1. KADETEAK	Usurbil-Hernani	Haranen	Bihar 15:30
NSK. KADETEAK	Usurbil-Mundarro	Haranen	Gaur 15:30
MUT. OHOR. INFANTILAK	Anaitasuna-Mundarro	San Juanen	Bihar 16:30
MUT. OHOR. INFANTILAK	Internacional-Hernani	Matigoxotegin	Bihar 09:00
MUT. 1. INFANTILAK	Zarautz B-Hernani	Asti Txikin	Gaur 09:30
MUT. 1. INFANTILAK	Sanse-Mundarro	Felix Garinen	Gaur 11:40
MUT. INFANTIL TXIKIAK	Mundarro-Villabona	Zarkumendegin	Gaur 10:30
MUT. INFANTIL TXIKIAK	Hernani-Allerru	Zubipen	Bihar 10:00
ALEBINAK 2	Euskalduna-Mundarro	Ubitarten	Bihar 12:00
ALEBINAK 1	Mundarro-Trintxerpe	Zarkumendegin	Bihar 10:00
WATERPOLO			
MUT. SENIORRAK	Donostia-Hernani	Paco Yoldin	Gaur 18:45

BOLEIBOLA			
NSK. KADETEAK 2	Fortuna 2-Hernani	Pio Barojan	Gaur 12:30
NSK. KADETEAK 1	Hernani-Summa Aldapeta 1	Kiroldegian	Gaur 10:00
NSK. INFANTILAK 2	Laskorain-Hernani	Tolosan	Gaur 10:00
NSK. INFANTILAK 1	Hernani-Summa Aldapeta 1	Kiroldegian	Gaur 10:00
ERREMONTEA			
1GO PARTIDUA	Aldabe-Arriarte/Goikoetxea V-Zubiri	Galarretan	Gaur 16:00
ERREMONTE EGUNA	Urriza-Barrenetxea IV/Juanenea-Ezkurra-Ion	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA	Seguroa-Azpiroz/Matxin III-Larrañaga	Galarretan	Gaur 16:00
ESKUBALOIA			
NSK. JUBENILAK	Mundarro-Mecalbe Eibar	Kiroldegian	Bihar 11:00
MUT. JUBENILAK	Hernani-Tolosa	Kiroldegian	Gaur 12:30
MUT. KADETEAK	Herhnan-Aloñamendi	Kiroldegian	Bihar 12:00
MUT. KADETEAK	Leizaran-Hernani	Allurralden	Gaur 16:00
MUT. INFANTILAK	Hernani-Urola	Kiroldegian	Bihar 10:15
MUT. INFANTILAK	Saieko-Hernani	La Sallen	Bihar 09:30
NSK. INFANTILAK	Leizaran-Hernani	Allurralden	Gaur 10:30
SASKIBALOIA			
GIZ. SENIOR 1M.	Mundarro-Donosti Dolphins	Kiroldegian	Gaur 18:00
GIZ. SENIOR 1M.	Hernani-Oiartzun	Kiroldegian	Gaur 18:00
GIZ. SENIOR 3M.	Zurrut-Mundarro	Andoainen	Gaur 19:30
GIZ. SENIOR 3M.	Zarautz Zast-Hernani	Antoniososen	Gaur 20:30
JUNIOR NESKAK	Mundarro-Internacional	Kiroldegian	Gaur 16:00
JUNIOE MUTILAK	Ama Guadalupekoa-Hernani	Hondartzan	Gaur 17:45
KADETE MUTILAK	Hernani-Ama Guadalupekoa	Kiroldegian	Bihar 12:00
INFANTIL MUTILAK	Mundarro-Easo Ikasten	Kiroldegian	Gaur 11:30

INFANTIL MUTILAK			
Bergara Soraluze-Hernani	Bergaran	Bihar 12:15	
ESKU PELOTA			
NAGUSIAK	Ioritz Arrieta/Urbion	Burgosen	Asdf
JUBENILAK	Apaolaza-Oiartzabal/Inturre	Hernanin	Gaur 18:00
INFANTILAK	Alberdi-Otaño/Izurun	Hernanin	Gaur 17:30
INFANTILAK	Moral-Urrutia/Orio	Hernanin	Gaur 17:00
INFANTILAK	Pascual-Azpeitia/Eple	Hernanin	Gaur 16:30
INFANTILAK	Gorrotategi-Urdangarin/Pagazpe	Hernanin	Gaur 16:00
ESKU PELOTA - TRINKETEA			
KADETEAK	Alegria-Arzuaga/Manterola-Urdanpilleta	Iruran	Bihar 11:00
SENIOR 2.M.	Pagola-Alvarez/Arizmendi-Aldunberri	Iruran	Gaur 18:00
ESKU PELOTA - TXAPELKETA PRIBATUAK			
	Arabaolaza-Martin/Zumalde-Eizagirre	Herreran	Bihar 10:00
	Martin-Pascual/Antiguo	Oronosen	Bihar 10:30
	Uitzi-Astigarraga/Ibarluzea-Goikoetxea	Elizondon	Bihar 10:00
ESKU PELOTA - MENDIALDEKO BINAKAKOA			
HAURRAK 1.M.	Sagastibeltza-Legarreta/Aurrera-Larraun	Leitzan	Bihar 16:30
KIMUAK 2	Ugartemendia-Apezetxea/Larraun	Leitzan	Bihar 16:30
KADETEAK	Mateorena-Elizegi/Larraun	Goizuetan	Astz. 18:00
PALA			
EH IREKIA ELITEA	Murillo-Saez/Galdos-Arrieta	Mallabian	Gaur 17:00
EH IREKIA JUBENILAK	Garazi-Olatz/Oberena	Alegian	Gaur 16:00
UDABERRI SARIA	Irati-Nahia-Joana/Zumaia	Zumaian	Gaur 09:15
ERRUGBIA			
OHOREZKO MAILA	Hernani-Ubu Colina Clinic	Burgosen	Bihar 12:15
23 URTEZ AZPIKOAK	Atletico SS-Hernani/Burgos	Burgosen	Bihar 10:15



Inauteriak


- 1 Zenbat lore daude?
 2 3 4 5 6
- 2 Jende guztiaren artean, bi bikini pare daude. Ze mozorro dute jantzita?
- 3 Aurkitu elementu hauek:

- 4 Aurkitu beste hauek ere: Elur-panpina, hontza, bandera pirata, Kapelu mexikarra


- 5 Irudiko cowboy-aren eta honen artean 8 ezberdintasun daude. Ikusten al dituzu?

Bakoitzari berea

Zuhaitz-enbor hauek ez dute itzal ona ematen. Zein da enbor bakoitzari dagokion itzal aproposa?



7 aldeak



Osatu

Marra baten bidez, lotu elur-panpin bakoitzari falta zaion elementua.



EGILEA: Garbine Ubeda (Aurr) TOKIOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaraturako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin irakurti



Eskuz esku elkarlanean eta lankidetzan aritzea da giltza, Kronikak egunero banatu eta herritarrengana iristeko

la 27.000 biztanle dituen bailaran Kronikaren 4.400 ale inguru banatzen dira egunero. Horretarako, ezinbestekoa da hainbat enpresa, merkatari eta herritarren arteko elkarlana. Banaketa sare zabala du Kronikak, haiei esker.

URUMEA KRONIKAREN BANAKETA

Enpresa munduan sarri hitz egiten da leihakortasunaz, baina lankidetzara eta elkarlana ere ezinbesteko tresna dira, hainbatentzat. Kronika, esaterako, Urumea bailarako enpresa, mer-

katari eta herritarren arteko elkarlanari esker iristen da egunero, milaka herritarrengana.

Etengabe adarkatutako banaketa sare

INEk eta Eustatek edota Udalek bildutako datuen arabera, 20.003

biztanle ditu egun Hernanik, horietatik 605, Ereñotzun; 6.077, Astigarragak; 704 Goizuetak; eta 116, Aranok. Denera, ia 27.000 biztanle dira Urumea bailaran, eta haien artean egunero Kronikaren 4.400 ale inguru banatzen dira. Etengabe adarkatzen den banaketa sare zabala dago martxan, horretarako.

Aurreneko banaketa lanak banatzaile enpresa batzuek eta okinek edo ogi banatzaileek egiten dituzte. Astigarragan, Dis-tipress eta Mendiluzek hasten dute bidea. Hernanin, berriz,

Sulabe hasten da, eta hortik, zabaldu eta zabaldu, Ereñotzu, Goizuetak eta Aranora ere iristen dira banatzaileak. Izan ere, aurreneko banatzaile horiek hainbat dendatan uzten dituzte Kronikak, edo beste okin batzuei, Dorronsorori, adibidez, banatzen dizkiete, eta hauek segi egiten dute banaketarekin: kiosko, denda txiki eta tabernetara eramaten dituzte batzuek, eta haietatik, zuzenean bezeroengana edota beste denda eta taberna batzuetara iristen dira Kronikak. Era berean, herrita-

rrak ere badira, banaketa sarearen parte. Ikasleek, adibidez, Hernaniko Institutuko eraikin desberdinetara eramaten dituzte ale batzuk, egunero; Astigarragan ere, eskolaraino iristen da, herritar batzuei esker.

Herriko merkataritza guneetan ez ezik, liburutegietan, supermerkatu haundietan, edota Rekalde gasolineran ere topatu daiteke Kronika, eta horietako puntu batzuetara, Kronikak berak ere ez daki, nola iristen den, herritarren eguneroko elkarlanari esker, ez bada! **K**

«Ogiarekin Kronika ematen dut, familia bakoitzari bat»

Lezokoa da Jesus Mari Iñarra, baina bailarako herritar askok baino hobeto ezagutzen du Urumea. Bi urte daramazki Sulabeko ogiak banatzen. Ogiak bakarrik ez; ogiarekin Kronikak ere banatzen ditu. Eguneko aurreneko lana izaten du.

SULABE JESUS MARI IÑARRA

Bi urte dira Jesus Mari Iñarra lezotarra Sulabe okindegiko banatzaile lanetan hasi zela. Aurretik beste batzuk ere egin dute lan bera. Dendaz denda, negozioz negozio edota etxez etxe banatzen duena ez da, ordea, ogia bakarrik. «Lehenengo Kronikak banatzen ditut».

Ogia banatzea da, berez, bere egitekoa. Baina askoz ere lan haundiagoa egiten du; berari esker iristen da Kronika egunero hainbat eta hainbat herritarren eskutara. Okindegi, denda, taberna eta bestelako negozioetara berak eramaten du, eta haietatik beste leku batzuetara egiten du bere bidea, gero, Kronikak. Baina hainbat bezerori eskura ere ematen die.

2.800 Kronika inguru, egunero

Goiz, oso goiz hasten da lanean Iñarra; «gutxi gorabehera, hasten naiz 04:40etan». Eta ogiarekin lanean hasi aurretik, beste egiteko bati heltzen dio. «Aurreneko gauza egiten dudana da, Kronikak sailkatu eta zenbatu. Izan ere, ez da bakarrik banatzea; denda batzuetarako nire multzoetatik bereizten ditut hainbat ale, haiek eramateko beste denda batzuetara. Multzo dezente egiten ditut: Ereñotzuko dendarako, Aranorako, Sulabeko beste lankideek banatzeko...». Denera, 2.800 bat Kronika pasatzen dira egunero Iñarraren eskutatik.

Multzo horiek antolatuta, denak kotxean sartzan ditu, «atzeko aurrera», eta banaketari ekiten dio. «Gutxi gorabehera pasatzen ditut 18 bat minutu Kro-



Jesus Mari Iñarrak lau ibilbide egiten ditu, Kronika, ogia eta gainerako egunkariak banatzeko.

nikak banatzen, Hernanin. Lehenengo Kronikak banatzen ditut. Gero, garaiz, 05:20etarako iristen badira, hasten naiz gainerako egunkariekin. Hauek 10 bat dendatarako prestatu behar izaten ditut; dendetarako egunero 450 egunkari inguru izaten ditut. Goizeko 05:20etan hasi, eta 06:15etarako bukatzen dut prestatzetik, eta banatzen hasten naiz. Banatu gabe geratutako Kronikak egunkari hauekin banatzen ditut».

Bi, hiru eta lau ibilbide

Egunkari horiekin bigarren ibilbideari ekiten dio. «Alde zaharreko dendak egiten ditut, Sulabekoak direnak eta ez direnak».

Eta horrekin bukatuta, hirugarren ibilbideari ekin behar

«Ondo ibiltzeko dena buruan eduki behar da, bezero bakoitzak zer nahi duen jakin»

izaten dio; sagardoarenari. «Horsartzen dira sagardotegi batzuk, baserri batzuk eta etxe pribatu batzuk. Horietan banatzen ditut ogia eta egunkaria, bakoitzaren eskaeraren arabera; batzuek bat bakarrik hartzen dute, besteek biak. Horretan 07:15etan hasten naiz, eta 08:00ak inguruan bukatzen dut. Tartean badauzkat, baita ere, zuzeneko bezeroak, bozina jo eta etortzen direnak ogia eta egunkaria erostera; adibidez,

Elizatxon. Ez nekien, hemen hasi arte, horrelako ohiturarik bazenik, eta jende zaharrak esan dit badirela, agian, 30 urtetik gora, ohitura hori badela».

Hirugarrenean bukatuko duela pentsatuko duenik bada. Baina ez, laugarren ibilbidea egiten du Iñarra, hirugarrena bukatuta. «Berriz Sulabeko okindegira etortzen naiz, eta bigarren salmentarako ogiak hartzen ditut: Aranorako ogi eta egunkariak eta Goizuetarakoak. Abiatzen naiz Aranorantz, eta handik jaistean joaten naiz Goizuetak aldera. Handik buletan Hernani aldera etortzean, aurreneko geldialdia egiten dut Benta Berrin. Bozina jo eta bezeroa ateratzen da. Hortik, lehen Hei-

neken zenean, orain zerrategia, geratzen naiz, eta langileentzako ogi eta egunkariak uzten ditut. Handik, Pikoaga, Latxe, Ereñotzu, Fagollaga eta Epele egiten ditut, eta hor, ezkerretara hartu eta igotzen naiz Onddi mendira. Hor baserrietan saltzen dizkiet bezeroei ogi eta egunkariak. Handik, Karabela jaisten naiz; baditut han lau bat bezero. Haiek kontatu zidaten ohiturarena. Hori eginda, igotzen naiz Santa Barbara auzora, eta han ere, bozina entzunda etortzen dira bost bat bezero. Hori izaten da azkenekoa. Handik, Sulabera etorri, eta itzuli diren aurreko eguneko egunkariak zenbatu eta enpaketatzen ditut. Badira egunak, ez dakit zergatik, egun horretako azalak oso erakargarriak ez direlako-edo, jendeak egunkariak erosten dituen. Nabaritzen da. Baina Kronikari ez dio eragiten. Ogiarekin Kronika ematen dut, familia bakoitzari bat».

Burua bizi eta ezustekorik ez

Hori guztia astelehenetik larunbatera egiten du. Igandeetan beste ibilbide bat egiten duela dio, «xamurragoa, egunkariak banatzeko bezero gutxiago dagoelako. Hernanin buelta egin eta Donostiara joaten naiz».

Guztia ondo egiteko, ezustekorik ez izate garrantzitsua da. «Egunkariak garaiz etortzea, istripurik errepidean ez topatzea...». Baina, garrantzitsuena, burua argi edukitzea da. «Ondo ibiltzeko dena buruan eduki behar da, bezero bakoitzak zer nahi duen jakin, egunero».

«Urrietara ere eramaten ditugu Kronikak, eskatu egiten digute»

Urte asko daramazki Hernanin Joxe Salaberria Narbartek, baina goizuetarra da jaiotzez. Kronikak banatzen ere, 12 urte egin ditu.

DORRONSORO JOXE SALABERRIA

Kronikaren banaketa sarearen bigarren adarretako bat da Dorronsoro okindegia. Sulabetik jasotzen dituzte eguneroko aleak, eta txokorik txoko zabalteko lanari ekiten diote.

Lan hori egiten duenetako bat da Joxe Salaberria Narbarte. «Goizuetarra naiz jaiotzez, baina Hernanin urte dezente daramazkit bizitzen». Dorronsoroko ogiak, eta Kronika eta beste egunkariak banatzen, berriz, 12 daramazki; «hau 13garrena dut». Bera bezala, beste bi lankide ere aritzen dira lan horretan, Dorronsoron. Denera, 400 bat Kronika banatzen dituzte egunero. «120 bat egunkari, behintzat, banatzen ditugu, eta Kronikak beti gehixeago jartzen ditugu, noski».

Urumea bailaratik kanpora ere bai

Sulabeko Jesus Mari Iñarra goizeko 04:40ak inguruan hasten bada lanean, Dorronsoroko Joxe Salaberria Narbarte, 05:00ak inguruan. Hark Kronikak multzoka sailkatu, eta aurreneko banaketa 18 minututan egiten du. Horri esker, Salaberriak, lanean hasi eta berehala jasotzen ditu.

«Hasten gara goizeko 05:00etan. Hiru gara, eta bi ordutegi dauzkagu; bat, 05:00etan hasten dena, eta bestea 06:00etan. Orduan hasten gara prestatzen ogiak, egunkariak eta Kronikak; denak. Eta bakoitza gure denda eta tabernetara hasten gara banatzen. Bakoitzak bere ibilbidea dauka. Ni batean eta bestean ibiltzen naiz; komodina naiz!».

Bide guztiak ezagutzen ditu, hortaz. «Bertara ekartzen dituzte Kronikak eta egunkariak, goizeko 05:00etarako, eta hasten gara horiek prestatzen, ogiarekin batera. Joaten gara Hernanira, Urrietara eta Andoainera. Kronikaren banaketa, batez ere, Hernanin egiten dugu. Izango dira 40 bat denda inguru. Gero, Urnietara eta Andoainera joaten gara. Goizeko 05:00etan hasita, 12:00etan bukatzen dugu, eta 06:00etan hasiz gero, 13:00ean. Bigarren

«Batzuek ez dute egunkaririk erosten, baina Kronika hartzen dute. Badakizu... eskela dela, edo... Doan delako izango da!»

«Kronika bai, Hernanin zer pasatzen den, hori irakurtzen dugu. Nik behintzat bai»

ordutegi horretan, lan gehientxuena Urnietara eta Andoainen egiten dugu. Baina joaten gara, baita ere, Donostiako Munttora edo Rekaldeko tabernara. Eta Jauregiko baserrietara ere bai: Saretxora, Santa Barbarara... lau bat badauzkagu, fijoak».

Kronikaren banaketa sarearen mugak zabaltzen ditu horrela. Izan ere, Urumea bailaratik kanpo Kronikarik ez dela banatzen pentsa liteke, baina ez da horrela. «Urrietara ere eramaten ditugu Kronikak, eskatu egiten digute; Hernanikoa izandako jendeak, batez ere, eta han bizi denak. Andoainen, berriz, ez. Han badaukate beraiena [Aiurri]. 120 bat egunkari, behintzat, banatzen ditugu, eta Kronikak beti gehixeago jartzen ditugu, noski».

Etxez etxe, edo armairuz armairu

Banaketa ez da negozioren bakoitzak bakarrik egiten. Etxez etxe joatea ere egokitzen zaio Salaberriari. «Etxeetara ere joaten gara, eta ogiarekin Kronika banatzen dugu. Agian ez dute izango egunkaririk, baina Kronika bai, hori fijo da. Batzuek ez dute egunkaririk erosten, baina Kronika hartzen dute. Badakizu... eskela dela, edo... Doan delako izango da!», dio barrez. «Kronika beti eskatzen dute».

Baina tratua ez da beti aurrez aurrekoa. «Etxez etxeokan, normalean haiek egoten dira zain. Baina badira baserriak, kanpoan armairutxo bat izaten dutenak, eta bertan uzten ditugu ogia eta egunkariak.



Joxe Salaberria Narbarteke 12 urte daramazki Dorronsoroko ogiarekin Kronikak banatzen.

Beste batzuetan bozina pixka bat jotzen dut, baina ez naiz horrietakoa. Hemen bada bat gus-tatzen zaiona urrutitik bozina joka hastea, baina niri ez! Hala ere, normalean oso txintxoak izaten dira denak, eta beren orduan egoten dira, zain».

Beste kasu batzuetan, giltza hartu, eta barrura! «Denda batzuetan giltza daukagu, utzi egiten digute, eta sartu barrura eta han uzten ditugu denak. Gero, Kronikak beraiek banatuko dituzte. Ez dizkigute bueltatzen, behintzat; egunkariak etortzen dira bueltan, baina Kronikak ez! Gero, ikasleak ere pasatzen dira Dorronsorotik Hernani BHira eta, eramateko Kronikak».

Modu batean edo bestean, jendearekin duten tratua oso ona dela azpimarratzen du. «12 urtetan ez dira gauzak aldatu. Tratua ona da, eta gero eta gehiago. Hasieran baino gehiago ezagutzen dugu orain elkar, eta gero eta hobea da. Jendearekin kalean ere gero eta tratu gehiago daukagu».

Letra lodietatik irratira

Hainbeste Kronika eta bestelako egunkari egunero eskue-tan atzera eta aurrera ibilita, informazio gehien daukaten herritarrak banatzaileak direla esan liteke. Salaberria, behintzat, ez dabil urrutiti. «Tartea izaten dugu bai, leitzeko. Behintzat, letra haundiak pasatzen ditugu, eta Kronikak, hemen hartzean, ere bai. Ez dena, baina nire gustokoei, letra haundienei aritzen naiz begira, eta Kronika bai, Hernanin zer pasatzen den, hori irakurtzen dugu. Nik behintzat bai».

Gidatu bitartean entrete-nitza ez da komeni, ordea. Baina badaukate horretarako erremedioa ere. «Gero, irratia izaten dugu beti martxan!».



Aldaketarako gogotsu

Pasa berri den urtarrilak 30eko greba orokorrak agerian utzi duen moduan, Euskal Herriak planto egin dio gutxi batzuen neurria egindako gizarte eta ekonomia ereduari.

URUMEA BABESTUTAKO EDUKIA

Hondatu da makineria zaharra. Heldu da aldatzeko garaia.

Bizi dugun krisi sistematikoak zerbaitetarako balio badu, izan da egun dugun paradigma ekonomikoa birplanteatzeko -edo, behintzat, honen inguruan eztabaidatzeko-. Birpentsatze horretan, asko dira gure lurraldean sortu diren, ari diren eta sortzear dauden ekimenak. Makina berri bat taxutzeko piezen bila dabilzanak.

Proiektu eraldatzaile guzti horien artean zubiak eraikitzeko -bakarrik ez baigoaz inora- eta kontsumo arduratsurako alternatibak ikusarazteko, duela urte gutxi batzuk sortu zen Batura. Elkartek mapa interaktibo bat du sarean, tokiko garapenean sakonduz gailu berritzaile honen eraikuntzan dabilzan ekintzaile eta eragile desberdinen erakusleho dena.

Greba orokorrak azaleratu zuten: Euskal Herria eraldaketarako gogotsu dago. Eta hortan dabil. Eredu zaharkitua behetik gora asaldatzen. Engranaje berriak artikulatzen. Elkarrekin, gizarte eta ekonomia eredu iraunkor eta justu bat antolatuta eta babesten.

Maialen Mangas Urkizu Batura

Euskal herriko ekonomia sozial eta eraldatzailearen mapa www.batura.eus

Hernaniko Elkarlan Sorgunea

Iturola.eus
Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAN BABESTUTAKO ATALA
Eziago Poligonoa, 21
Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus



Zamariak

'ZEROZEROZERO' telesaila martxoaren 6an iritsiko da gure pantailetara; 'Gomorra' famatuaren idazlearen lanean oinarritua. Ez da hilabete honetako gomendio bakarra, hala ere. Orena, norberak ikusi eta epaitzea!



AITOR CARACCILO

URUMEA TELESAIL ETAN ADI(K)TUA

Onartu dezagun; gaur egun interneteko plataforma ezberdinek hartu duten indarra geldiezina bihurtu da. Hauen ugaritzeak ekarri duen onura ikusi beharra dago difusio, malgutasun eta barietateari begira. Halaber, iruditu zait denbora askoan, honek ohiko telebistari kalte egiten ziola, gurean ditugun hainbat kateetan, produkzio edota telesail eduki aldetik gero eta murriztagoak ikusten baintuen. Moldatze prozesu bat zela ez genuen ikusten, agian?

Netflix, Amazon edo HBO bezalako plataformek irabazitako botereari kontra egin ordez, telebista kate tradizional gehienek, hauekin elkarlan prozesu

batean sartzeko erabakia hartu zuten. Modu honetan, mailguak izateko aukera izateaz aparte, beraien produkzio propioak internazionalki errazago banatzeko eta, era berean, beraien finantziatu edota ko-produzitzeko aukera handiagoak izateko, hartara, kalitatea bermatuz. Horrela gertatu da, Europa mailan dauden hainbat produktora eta media enpresek, hauekin izan dituzten akordioen produkzio ezberdinen etorrera.

Eta gauzak honela, eta emandako txapa guztiaren ostean, iritsi gara gaurko nire gomendiora. Gaur ekarri dizue dan telesailaren izena da ZEROZEROZERO. Sky Italia, Canal + eta Amazon-en arteko elkarlan indartsua. Izen bereko Roberto Saviano (*Gomorra* famatuaren idazlea) liburuan oinarrituriko produkzio honek, Stefano Somilla zuzendari eta gidolaria du buru. Aski ezaguna, berak ekarri zuen ere *Gomorra* liburuaren telesail adaptazio arrakastatsua edota Italian, famatuak egin zuten *Suburra* edota *Romanzo criminale*. Mexiko, EEBB, Italia, Se-



Mexikoko droga kartelak eta Italiako mafiak nahasten dira telesailan, Lynwood familiaren itsas garraio enpresarekin.

negal eta Marokon ekoitzia eta grabatua izan den serie honek, Lynwood familiak zuzenduriko itsas garraio enpresak, Mexikoko droga kartelekin eta Italiako mafiarekin elkarlanean sortutako sarearen inguruko gertakariak kontatuko dizkigu. Iazko Veneziako zine festibalean Premierra izan zuen arren, Italian eta Europa mailan, otsailaren 14an estreinatu zen. Gurera ordea, martxoaren 6an iritsiko da

Amazon PrimeVideo zerbitzua- ren eskutik, denboraldi osoa egun berean estreinatu. «Cast» internazional aski ezaguna duen fikzioak, 8 atal izango ditu guztira. Droga eta mafia internazionalak, familia boteretsuak eta negozio zikinak; thriller gordin naiz interesgarria. Ni, dagoeneko, harrapatua naukana...

Gehiagorik behar? Hil honetan ere izan ditugu: *The Sinner*, *Briarpatch* sailkaezina, *Gente*

hablando, *Locke&key*, *Vergüenza* bikaina, *Kidding* paregabea, *Drama*, *Homeland*, *Narcos: Mexico*, *High fidelity*, *Outlander*, *Hunters*, *L'amica geniale*, *Better call Saul* nahitaezkoa, *I am not okay with this* bizarroa edota *Altered carbon*. Aukerak nonahi! Sarean bilatu itzazue eta ustekabeke opariren bat jasoko duzue haue- tako batzuekin ere. Dena den, beti bezela, ikusi eta txunditu! K

DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU eguerditan gazteekin aritzeko

Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:

dobera@dobera.eus

DOBERA Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionaturako formazioa
- Haur eta gazteekin esperientzia

BALORATUKO DA:

- Doberako bazkide izatea
- Hernaniarra izatea

ESKAINIKO ZAIQ:

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak
- Kontratu formala

Baldintzak betezen dituztenez artean elkarrizketak egin eta baf aukeraturiko da

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI

943 557 509

KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA

Bidali zure CV-a, **otsailak 29ra** arte:

kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatzi.
- Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- Iniziatiba eta empatia.
- Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

BALORATUKO DA:

- Urumea bailara ezagutzea.
- Doberako bazkide izatea.
- Tokiko hedabideak ezagutzea.

ESKAINIKO ZAIQ:

- Aktualitatearen jamaipena egitea.
- Kazetari lanetan esperientzia.
- Maketatzeko, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.
- Sare sozialak menperatzea.
- Kontratu: amatasun bajari dagokiona.
- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betezen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeraturiko da.

Kronika **DOBERA**